


**URRUZUNO**

literatur lehiaketa

**1992**

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila  
Euskara Zerbitzua





katalogoa

Eibarko Hezkuntza Esparrua

943.20.27.48

20600 EIBAR



**EUSKO JAURLARITZA**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA  
Euskara Zerbitzua



**GOBIERNO VASCO**


DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION  
Servicio de Euskera

*irakaskuntza ertainetako*

**URRUZUNO**

**literatur lehiaketa 1992**

**LAN SARITUEN BILDUMA**



Gasteiz 1992  
EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN ZERBITZU NAGUSIA

Lehenengo argitaraldia: 1992ko uztaila  
Ale kopurua: 3.500

© Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Administrazioa  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila  
Azala: Jesus Iturriza  
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Wellington Dukearen kalea, 2 – 01011 Gasteiz  
Fotokonposizioa: FONASA, Sancho el Fuerte Etorbidea, 26 – Pamplona  
Inprimatzailea: ZURE, S.A., Padre Larramendi, 2-bajo – Bilbao  
I.S.B.N.: 84-457-0161-4  
Lege Gordailua: BI-1.195-1992

## AURKIBIDEA

Hitzaurrea .....	7
<b>Baldin eta azterketa bezpera egun batez, ikasleren bat...</b> Mariasun	
Landaren aintzin solasa .....	9

### Prosa: A maila

● Amaigabeko itukin latzak .....	<i>Amaia Apaolaza Goena</i> .....	17
● Fiat voluntas tua .....	<i>Maria Longarte Arriola</i> .....	25
● Ostiral gau bat .....	<i>Jon Urrestilla Urizabal</i> .....	31
● Romeo eta Julio .....	<i>Ibon Iribarren Aristizabal</i> .....	41
● Ziutate postmoderno historia- gabea .....	<i>Xabier Ganzarain Etxaniz</i> .....	55
● Pailazoak irrifarra galdu du! ..	<i>Ainhoa Galparsoro Sarriegi</i> ....	61

### Prosa: B maila

● Azken etapa .....	<i>J. Ander G. de Kortazar Agirre- zabal</i> .....	69
● Errege etzana .....	<i>Larraitz Urkia Garmendia</i> .....	77
● Nagusia eta hirurok .....	<i>Mikel Artola Iriondo</i> .....	87
● Kondairak dioenez .....	<i>Igor Estankona Bilbao</i> .....	95
● Zozketagai xelebrea .....	<i>Jon Alzate Azpiroz</i> .....	103
● Ibai baten esamesak .....	<i>Aitziber Salinas Elozegi</i> .....	113

### **Poesia: A maila**

● Azken fotogramak .....	<i>Josu Goikoetxea Gezuraga</i> .....	121
● Denboraren hautsontzian .....	<i>Harkaitz Cano Jauregi</i> .....	127
● Gaua eta zu .....	<i>Unai Iturriaga Zugaza-Artaza</i>	135
● In memoriam .....	<i>M. Jesus García Berasategi</i> ....	141
● Maitasun poesia .....	<i>Ainhoa Negeruela Izagirre</i> .....	147

### **Poesia: B maila**

● Amodioaren garapena .....	<i>Larraitz Garmendia Munduate</i>	155
● Amodioaren sehaskan .....	<i>Garikoitz Berasaluze Ostolaza</i>	161
● Poesiaren magalean .....	<i>Garikoitz Berasaluze Ostolaza</i>	167
● Zerutik maiteari .....	<i>Urtzi Urrutikoetxea Vacas</i> .....	173



## HITZAURREA

Zazpigarren urtea bete du Irakaskuntza Ertainetako URRUZUNO LITERATUR LEHIAKETAK. Orain arteko partaidetza markak hautsiz bete ere; 627 lan jaso bait dira aurren, honela banaturik:

	PROSA	POESIA
A maila	139	58
B maila	359	71
	<hr/>	<hr/>
	498	129

Honako hauek osatu dute 1992ko epaimahaia:

Jon Kortazar  
Mariasun Landa  
Andu Lertxundi  
Lurdes Otaegi  
Joxe Mari Satrustegi

Lehiaketak dituen 20 sariak bosnaka banatzen dira bi arlo eta mailatan. Poesia arloko B mailan bost sarietako bat hutsik uztea erabaki du epaimahaiak. Bestalde, maila horretan bertan bi sariren jabe egin da Garikoitz Berasaluze

Ostolaza. Hutsik geratutakoa eta azken honen bigarrena, aipamena jaso duten Ainhoa Galparsoro eta Aitziber Salinasek eskuratuko dituzte.

Sari irabazle bakoitzari dagokiona hauxe da:

- Irailean 10 egun inguruko bidaia Paris eta Herrialde Beheretara.
- Bidaia horretako norbere gastuetarako laguntza: 30.000 pezetako bidai boltsa.
- Oroigarria. Iraileko sari banaketan emango zaie.
- Lanak bilduma honetan argitaratzea. Liburua eskola denetara eta parte hartzaile guztien etxera bidaltzen da.

Azkenik, ikastetxeei egin ohi zaien aipamena aurten Elgoibarko Batxilergo Institutuak eta Donostiako Barandiaran Lizeoak jaso dute. Aipamen horrek irabazleekin batera bidaiari joateko eskubidea ematen dio bertako irakasle bari.

Saritutako lanen bilduma honi buruz ohartxo bat, amaitu baino lehen: arlo eta maila bakoitzean izenburuaren araberako alfabeto ordenaz azaltzen dira lanak eta ez beste inolako lehentasuni begiraturik.

Zorionik beroenak irabazle eta aipamendunoi eta gozameneko izango al duzu, irakurle.

**Euskara Zerbitzua**

**BALDIN ETA AZTERKETA  
BEZPERA EGUN BATEZ,  
IKASLEREN BAT...**

**Mariasun Landaren**  
aintzin solasa



Utz iezadazu imajinatzen igande ilunabar batean gertatu zitzaizula. Ohizko igande hits horietako batean, agian.

Utz iezadazu imajinatzen etxean gelditu zinela, hurrengo egunean zenuen matematika edo ingeles edo historia azterketa prestatzeko asmoz. Eta apunte eta liburuen artean nagitasunez sartu berria zeunden bitartean, zugan literatur kimu berri bat sortuz joan zela. Ideia edota sentimendu berriren bat, ikasi beharreko gaiarekin zerikusirik ez zeukana, guztiz orijinala eta tentagarria iruditu zitzaizuna, beste guztia baztertzeraz eta premia handiz hartaz idaztera behartzen zintuena...

Utz iezadazu imajinatzen, hitz gutxitan esanda, igande ilunabar hartan, Inspirazio Andereak bisita egin zizula ohizkoa duen moduan, hau da, aurrezitarik gabe eta une desgokienean, bestetan ere horrela jokatzeko baitu, axola gabe bezain probokagarria baita.

Matematikako edo ingeleseko edo historiako liburukote eta apunte zirriboratuak baztertuz abiatu zinen folio zurian barrena, bide hartatik nora helduko ote zinen batere jakin gabe, edozein abenturak eman ohi dituen emozio eta premia berberetz. Eta hasieran bai, hasieran trumilka zetozkizun esaldi luzeak, adjetibo zehatzak, esamolde bitxiak,

den-denak asmatu berria zenuen istorioaren zerbitzuan zeudelarik. Dena ondo zihoan, emozio berezi batek harrapatua idazten zenuen eta presa eta grina handiz izkiriatzera behartua sentitzen zinen, gazte garaian idatzi behar den moduan bezala, alegia.

Utz iezadazu imajinatzen, zu baino zaharragoa baina ziur asko ez zuhurragoa naizelako, poliki-poliki, idazteko erritmoa apalduz joan zitzaizula. Tren zahar baten antzera zenbait estazio eta apeaderotan, puf, puf, puf, gelditzen hasi zitzaizula idazteko etorria... Lehendabizi, *Nekearen Geltokian* geratu behar izan zenuen, lepoko mina, bizkarrekoa, ipurdikoa eta abarrekoa logura apur batekin batera... Baina, kafe bat hartuz, Ducados zigarro pare bat erreaz eta leihoetik kanpoko zuhaitz malenkoniatsuetan begiak pausatuz, bidaia jarraitzeko adina indar hartu zenuen. Geroxeago, denbora aurrera zihoan ahala, narrazioaren argumentuan bertan aurkitutako oztopo batzuek geldiarazi zintuzten *Zalantzaren Apeaderoan*, non bapatean ordura arte idatzitakoak istorio koherente eta erakargarria osatzen ote zuen zalantzaren ziztada bizi-bizia sentitu izan zenuen. Idazten ari naizenak balio al du? galdetu zenion zeure buruari. Horrek atzera jotzera behartu zintuen, parrafo batzuk ezabatu, sekuentzia batzuk aldatu, berrukitu pare bat egin behar izan zenituen bidaia jarraitu ahal izateko...

Utz iezadazu imajinatzen, ni ere hortik pasa eta irten naizelako, abenturaren mementu horretan azken estazioan gelditzea falta zitzaizula, geraleku benetan iluna eta arriskugarria, non literatur tren asko eta asko betirako herdoilduak eta baztertuak geratzen baitira: *Autokritikaren Geltokia*. Seguru asko, geldiune horretan, idatzitakoa berriro irakurtzean zentzu eta graziarik gabekoa iruditu zitzaizun, presentaezina ia-ia, inozoa edota interesgabea, huskeriaren bat, ume-keria hutsa, hizkuntzak eskaintzen dituen keria guztiak ku-

pidarik gabe elkartzen baitira estazio horretan, geure autostimaren kalterako.

Utz iezadazu imajinatzen, puntu honetara ailegatuta, zeure burua bost metrotako distantziarekin ikustea lortu zenuela. Burututako istorioa ez zitzaizula oso txarra iruditu, ezta oso ona ere. Bitarteko iritzi batean finkatu egin zinen, zuhurtasun minimo batek agintzen duen lez. Beharbada, horregatik ez zenuen zakarrontzira bota hainbeste ahaleginekinekin lortutako lana, guzti hura birpasatzea, zuzentzea, txukuntzea hurrengo egun baterako utzi zenuelarik.

Utz iezadazu imajinatzen, bukatzeko, eta bizitzak noizbehinka eskaini ohi duen kasualitate zoriontsu bati esker, hurrengo egunen batean, institutuan, *Urruzuno literatur lehiaketaren* berri izan, eta zeure lana aurkeztea erabaki zenuela...

Susmoa dut gehiegi imajinatu dudala baina ez dut zailtasun jartzen azterketa bezpera hartan idatzitakoak pena merezi izan zizula, nahiz eta matematikan, ingelesean edo historian oso nota ona ez atera. Berdin zait jakitea sariren bat jaso duzun ala ez, zeren irabaztea edo galtzea, batez ere literaturan, oso erlatiboa izaten baita; irabazleok eta besteok ere, lan literarioaren gozamenak eta sufrimenduak ezagutu egin dituzuelako, mundua birsortzeko errekurtsioa erabili duzuelako.

Zorionak, bada, guztioi, eta hurrengo azterketa bezpera arte.





## **PROSA. A maila**

B.B.B.ko 3. kurtsoa, U.B.I.,  
L.H.ko 2. gradua eta  
I.E.E.ko 2. zikloa



# **Amaigabeko itukin latzak**

Amaia Apaolaza Goena  
Alkartasuna Lizeoa  
Beasain



Pasilo luze hartan gorantz eta beherantz eginiko buelten kontua galdua banuen ere, leku zikoitz haren irudia sekula ahaztuko ez zitzaidalakoan nengoen: bukaezina zirudien zolu zuri bat; horma zuri bikote bat; sabai zuri bat; aurrera nindoan eran, ate zuri batzu, 372, 373, 374... zenbakiak goikaldean zituztelarik; etengabe soineko zuriz jantzi-riko jendeak pasatzen ninduen alde batetik bestera; eta pasiloaren bi iskinetan, aulki zuri batzutan eserita, jendea. Urduritasuna, kezka, urduritasuna, atsekabea, urduritasuna, negarra... urduritasuna zen nagusi leku zuri haren erreinuan.

416. atea. Bere ondoan, azken muturrean, kafe makina. Aurreko kafeen zapore garratza, joan nahi ezean bezala zebilkidan eztarriko zuloan, baina hala ere, poltsikotik azken txanpona atera eta, minutu bat barru, berriro eskuetan nuen ke xume bat zerion likidoz beteriko edalontzia. Egun hartara arte gorroto nuen kafea eta hurrengo egunetik aurrera, berriro gorrotatuko nuen. Orduan orde, auskalo. Beste egitekorik ez daukazunean, gusto hartzen diezu gorroto dituzun gauzei; eta gustoko dituzunei... batek daki. Azken hauek, ahaztu nahian zabilta; buruan, milaka eta milaka buelta ematen dizkiezu, baina ez duzu ezer lortzen. Ez dago zure eskuetan ezer egitea... ez zegoen nire eskuetan.

Eta bitartean, zer? Aspertu egin nintzen gora eta behera ibiltzen. 416. atearen kontra jarri nuen nire bizkarra, barrura sartzeko beldurrez. Ez nuen sartu nahi, zaindari baten gisan geratu nintzen. Baina, zergatik zaindari? Noren zain nengoen? Edo, zeren zain? «Ez Amaia, ez pentsatu horrelakorik, ez da hori gertatuko». Esaldi hori atera zitzaidan nire gorputzeko tokirik sakonenetik; benetan egia ote zen nire barrenek ziotena? Nire desiorik handiena zera zen: beldurrezko filme bat ikusi ondoren egiten ari nintzen amesgaizto bat izan zedin guzti hura.

Baina banekien, nire kontra zegoen ate haren atzekaldean gertatzen ari zen guztia. Eta ez zen amesgaizto bat, errealitate gordina baizik. Nire aitak ezpainetan izan ohi duen irrifarre xamurra desagertua izango zen jadanik eta hainbeste lan eginiko bere bi esku indartsuen eginkizun bakarra, amaren esku bati xumeki heldu eta aurpegi zurbil hura leunki laztantzera izango zen. Mundura ekarri ninduen emakume hura berriz, ohe hotz hartan etzanda egongo zen, begirada saminkor batekin sabaiari so, itxaropenaren kandelatza itzali nahi ezean bezala. Entzun zitekeen gauza bakarra, amaren arnasa hotsa izango zen, geroz eta ozenagoa, eta ahulagoa aldi berean. Itolarri batzuk noizean behin, eztulak eta berriz arnasa hotsa: ozenagoa eta ahulagoa, ozenagoa eta ahulagoa... Bizitzaren gora beherak. Bizitzarenak? «Bai, bai Amaia, bizitzarenak». Berriro ere, garrasi bat zetorkidan barrenetik.

Beldurra, kezka eta urduritasuna. Eta berriro, nire hankak pasiloan gora ninderamaten, zaindaritza alde batera utziz. Lehengo pasilo zuri bera eta jende bera bi aldamenetan, bata zuridun pertsona berdina alde baterantz eta besterantz, presaka eta espresio berdina guztien aurpegietan. Eta ni, noraezean; pauso baten atzetik, beste pauso batek ninderaman tokirarte.

Berriro pasiloan beherantz nindoanean, bata zuridun talde batek, inoiz baino presakago pasatu ninduen. Monotonia, pixka bat hautsi zuten behintzat! Minutu pare bat barru, 416. atea berriro. Irekita! Bata zuridunak, banaka-banaka zetozen kanpora, poliki-poliki eta lurrera begira. Barrura sartu nintzen eta ama ez zegoen sabaiari so. Begiak erabat itxita zituen, indarrez itxi izan balitu bezala. Ez zen arnasa hotsik entzuten, eta nire bizitzako hamasei urtetan zehar, aitaren aurpegian sekula ikusi gabe neuzkan malko lodi batzuk, goitik behera, urjauzi batean ura joan ohi den bezala: halabeharrez. Ohearen gaineko gorpu hura astintzen hasi nintzen.

—Amaia, ez duzu ezer lortuko— nire aitak bere bizitza guztian ez zuen hitzik egin hain samintasun handiz.

Nire barrenetik, beste garrasi bat entzun nuen: «akabo!». Ez, ezin zuen izan. Zergatik? Halaxe zen ordea. Kandelaren su printzek azkeneko argizari izpia errea zuten dagoeneko. Sortu ninduten bi pertsonak hantxe zeuden; bata zutik, ni besarkatuz eta bestea, ohean etzanda, lo sakon batean, inoiz gehiago esnatu eta jaikiko ez zelarik.

Bosten bat minutu egon ginen aita eta biok, negar zotinka, elkar besarkatuz, zoritzarreko gela doilor hartan, asko maite genuen pertsona baten aurrean. Ondoren, aitak, askatu egin ninduen, bakarrik egon nahi zuen. Bakarrik? Ez; azken hitzak esan nahi zizkion, nahiz eta belarri haiek gehiago ez zuten entzungo, baina kontrarik behintzat ez zion egingo. Momentu hartan, amak bota ohi zizkigun builak faltan sentitzen nituen.

Txanpon bat eman zidan aldegin aurretik. Lehenengo topatu nuen telefonoan sartu nuen txanpona, baina etxeko zenbakia ahaztua nuen. Gogoratzeko hainbat aldiz deitu izan nuen ba etxera! Telefonoa eskutan nuela, lurrean eseri

nintzen. Jendeak, sano ez banengo bezala begiratzen ninduen. Nik lurrean jarraitzen nuen, bi besoez belaunak inguratuz eta negarrez, garraisika. Bizitzari zentzua bilatu nahirik nembilen; hain zentzugabe den gauza bati zentzua bilatu nahirik. Eta telefonoa? Zenbakia gogoratu bezain laster deitu nuen etxera. Anaia gazteenak hartu zuen. Niri ia ez zitzaidan hitzik ateratzen eta «ni naiz» soil bat esan ondoren, negar zotinak isilarazi ninduen. Ondoren, telefonoz bestaldera, buila ozen bat eta negarra somatu nuen eta telefonoa zakarki eskegia izan zen. Nire anaia jabetu zen guztiaz.

Nire aldetik, telefonoa eskegitzeko indarririk ere ez nuen izan. Lurrean jarraitu nuen, bizitza gorrotatuz eta aldi berean maitatuz. Ezerk ez zuen arrazoirik. Guztia zen halabeharrez. Bizitzaren lorratzak, noraezean zebilzkidan, udazkeneko haizeak, zuhaitzetatik indarkeriaz botatako orbelak erabili ohi dituen bezala.

Hurrengo egunean, sentimendua berbera zen. Gau guztian, gure etxean ez zuen inortxok lorik egin. Egunsentian, txorien lehenengo abestiak tristeak iruditu zitzaizkidan, hileta doinuak balira bezala. «Delirium tremens»-en abesti bat zetorkidan etengabe burura:

«...Edonoren heriotzean,  
*bizitza agurtzen besterik ez denean,*  
egurrezko kutxa baten aldamenean,  
jendea negarrez hasten da.  
Irtenbide guztiak itxi,  
denak oso triste daude  
eta defuntua isilik, isil-isilik dago...»

Ordura arte jaso ez nion esanahi sakona jaso nion abesti hari. Uste dut abesti hau entzuten dudan bakoitzean ne-



garra etorriko zaidala begietara, gaur bezalaxe. Ez da eragozten erraza.

Egun hartatik ahaztuko ez dudan beste gauza bat, lagun-en aurpegiak dira. Hileta elizkizunaren ondoren, elizatarian, lagunak hurbildu zitzaizkidan eta bi musu eman zizkidaten, nire aurpegian zehar zihoazen malkoek beraien masailak bustitzen zituzten bitartean. Beraietako bakoitzaren begiei errukia zerien eta erruki hura nolabait eskertu egin nuen, eta ez dakit zergatik. Zer esan pentsatzen ari ziren denak, hitzik gabe zeuden ordea. Norbaitek, «lasai, Amaia» esan zuen. Baina, zergatik lasai? Zer ote da lasai egotea? Eta zergatik esan zidaten hori, beraiek ere lasai ez zeuden momentu batean?

Gaur, oraindik, ez diet erantzunik aurkitzen galdera filosofiko hauei. Filosofikoak; beraz, erantzunik gabeak. Eta uste dut, ez diedala erantzunik aurkitu ere egin nahi.

Eta orain hemen aurkitzen nauzue, neguko egun hotz batean, etxeko jangelako tximinian dagoen su bajuari begira; orri zuri batzutan gertakizun sentikor guztiak idazten, sentimendu saminkor guztiak, samin amaigabe guztiak... Eta zergatik idazten? Bolalumaren bidez dena askatuz garuna hustuko dudalakoan, gogoratu ahaztuko dudalakoan. Hau alferrikako lana!

Izan ere, ezin dut burutik kendu. Lurrean lotuta zegoen haritz sendo bati, bi adar lodienetako bat, haizeak bota dio. Hosto gutxiago jaioko zaizkio udaberrian eta txori gutxiagok egingo dute beren kabia bertan. Baina ezin da eragotzi. Sendotasuna zuztarretan bakarrik geratzen zaio, lurpean. Horixe da sentitzen duguna: elkarrenganako eta haizeak bota duen adarrarenganako maitasuna. Eta damua, sekula ez niolako ezer esan. Besteei esango diet, bai! Damurik behintzat ez da errepikatuko.

Eta bitartean? Kanpoan, euria. Laino beltz batzutan sortu eta goitik behera, etengabe. Teilatuaren kontra jo, eta irristatu, eta teilatu ertzean, ttantton lodi batzuk: itukinak. Barruan, suaren berotasuna. Niregan ordea: begi grisetan malko garratz batzuk, ingurunea gorritzen dutelarik; masailan zehar irristatu eta okotzean, ttantton lodi batzuk: itukinak. Leku guztietan ttantton lodiak, amaigabeko itukin latzak.

# **Fiat voluntas tua**

Maria Longarte Arriola  
Elgoibarko B. Institutua  
Elgoibar



Hamabiak bost gutxitako kanpaiak jo zuen eta artean Erreka Barren parean mezetara nindoan presaka eta korrika, Aste Santua izaki Kristoren Berpizkundera ospatu asmoz. Eguzkiak bortizki berotzen zuen, mototseko ileek irrist egiten zuten lepoan barna eta han izerdiarekin bustitzen ziren ur freskotan ito nahiz. Pausoa arindu nuen, elizan aurreneko bankuetan eser nendin eta han inondik baino argiago Nere Bihotzeko Ama Birjina ikus nezan; hain zen gardena bere begirada, hain zen ezia bere irria, hain paregabeak apaintzen zuten loreak. Dan-dan-dan-dan... hamaikagarren-nerako bigarren bankuan eseririk nengoen. Han nekusan ene Ama Birjina, ahaztezinezko irrifarrarekin.

Apaizak, sakrariatik atera eta aldarera bidean, aitaren egin zuen, belaunikatu eta mezari hasiera eman zion. Han geunden denok, adi, Eliza Ama Santuaren lehen aginduak dioen lez Meza Osoa entzuteko prest. Sarrerako lehen hitzak aipaturik, aintza kantatu eta lehen, bigarren eta hirugarren irakurgaiei hasiera eta amaiera eman zien: «Pazko garaiko Jainkoaren hitzak Kristau elkartera eramaten gaitu sarri. Lehenengo irakurgaia Apostoluen eginetatik egingo dugu, Jesus Berpiztuaren lehen jarraitzaileen bizimodua begiratzuz». Bigarren irakurgaia Apokalipsis liburutik zetorkigun. Jaun Berpiztuaren garaipen betea ematen zigun aditze-

ra. Aleluia. Aspertuta eta, ahaleginak egiten nituen arren, hain meza ederra jarraitzeko nire ametsetan murgiltzen nintzen eta han, baso ilunean galdutako Txanogorritxuren antzera, galdu egin nintzen, nahigabe, errugabe...

Zeru urdinean aurkitu nuen hain zuen bera, nire bizitzako gorpil gisa egingo zuen mutikoa. Bere ezpainak nireekin itsasten ikusten nituen udazkeneko arratsalde euritsu batez, bai, nik banekien ongi non izan zen, nik banekien bai ongi. Bere ezpain hezeek urduri jartzen ninduten, kilikatu egiten ninduten. Batzutan poliki, bestetan bortizkiago elkarri mihia korapilatzen genion. Gustoko jokua genuen. Begiak itxita haren aurpegi ederra deskribatzen saiatzen nintzen: beltzarana, leuna, begiek egurrikatz pinportatxoak ziruditen eta ahoa. Hura bai zela une goxoa! Elkar muxukatu, elkar begiratu, elkar dastatu... Eskuak urduri eta noraezean gerrian nizkion sentitzen, zeinen sendoak, zeinen esanguratsuak. Bere masailak bularretan zehar ero moduan galtzen ziren noraezean esperientzia berriak bilatu nahiz. «Zeinen ederki txiki, zeinen ongi dakizkizun gauzak egiten». Galtza bakeroak izugarri atsegin zitzaizkidan, estutzen zihoazkion eta berak ere bazekiela uste nuen. Maite zintudan.

Denborak aurrera eta, zertxobait lasaitzeko, kontu kontari hasi ginen: «Astearen lehenengo eguneko ilunabarrean etxe batean bildurik zeuden ikasleak ateak itxita judutarren beldurrez. Sartu zen Jesus eta haien erdian zutik honela esan zien: “Bakea zuekin”. Hori esanda eskuak eta saihe-tsak erakutsi zizkien eta ikasleak pozez beterik gelditu ziren Jauna ikustean. Jesusek berriz ere, “bakea zuekin”. Aitak ni bidali nauen bezala nik ere bidaltzen zaituztet zuek eta, hori esanez, haize eman zuen haien gainera eta esan zien: “har ezazue Espiritu Santua. Zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenei barkatuak gelditzen zaizkie eta lotzen dizkiezuenei lotuak gelditzen zaizkie...”».

«Sinisten dut, sinisten dut Jauna, sinisten dut». Zu zinen ororen errege, zu ororen jaun eta jabe, zure eta nire jabe. Ohargabeen gauaren morroi bilakatu ginen eta ihintzaren usaiean elkar ferekatzen hasi ginen, poliki-poliki... Hasierako jokua jarraituz, lehen pauso berberak jarraitu genituen, ahoa, ezpainak, mihia, masailak, ahoa. Nahigabe lepoaz jabetu zinen, lepo luze hartaz eta goraxeago belarri txikitxo batekin trabatu zinen. Oztopo hura kilikagarria izan zen, batez ere azpikaldeko haragi zatitxoa, hurbiltzeaz bat maitearen hotzikarak senti zenitzakeen, gorputz gaztea gora eta behera zeharkatzen zutenak, alegia. Bitartean eskuak aurrera, atzera, ezker eta eskuinera aurkikuntza berriak eginez, misterio berrien bila.

«Hau da sinismenaren misterioa. Ogi-ardo hauek hartzean zure heriotza degu aitortzen Zu, Jauna, etorri artean».

Une hartan ez gindoazen heriotzera, bizitzaren itxaropen eta etorkizuna geu bait ginen, zoriontsu, gaztetasun eroaren seinale. Gerritik beherako jokua ere bagenekien gustokoa zela, gustokoa zutela, behinik behin. Mundu berri baten bila ekin zenuten. Lasai geunden, bagenekien zer nahi genuen, ez genekien nola.

«Jainkoaren bildotsa, munduko pekatua kentzen dezuna, erruki zakizkigu. Jainkoaren bildotsa, munduko pekatua kentzen dezuna, erruki zakizkigu. Jainkoaren bildotsa, munduko pekatua kentzen dezuna, emaguzu zure pakea».

Elkarren aurrean belaunikaturik, oraindik ezagutzen ez zenuen zuloan, behatza sartu zizun, saiatu zen baina mina nabaritu zenuen. Orduan Ama Birjinaren aurpegi eztiak ikusi zenuen, gero eta gardenago, gero eta argiago eta eztiago. Zure lagunaren behatza irentsi zenuen, honekin batera bion arnasa irentsi zenuten.

«Agur nere Jesus, maite zaitut. Bizitza egarri naiz, eman zaidazu. Zure gorputza jan, zure odola edan, hauek naramate zerura hegan. Agur nere Jesus, agur, agur. Hementxe gauzkazu zure lagun...».

Atzera egin zuen eta bortizki besarkatu zenuten elkar, maitasun hitzak elkarri esanez, betirako zure barnean geldituko ziren maitasun hitzak, inork lapurtuko ez zizkizunak, beti zureak izango zirenak. Elkar besarkatzen jarraitu zenuen zure iztarrek beste behatz bat ezagutu zuten arte. Bel-durtu egin zinen. Ezetz esan zenuen. Ikaratuta zeundeten. Zer da pekatua? Pekatua Jaunaren Legearenganako borondatezko desobedentzia da. Errudun sentitzen zineten, gertatutakoaz damututa, gerta zitekeenaz pentsakor. Maite zenuen. Maite zintuen. Elkar maite zenuten.

Belar bustiaren gainean euritako jantziak luzaturik elkarren gainean etzan zineten. Behatzek euren lekunea aurkitu zuten, ezpainek eurena, ahoek eurena, bihotzek eurena. Pentsamendua nahasturik, udazkeneko errekaetara eram zuten.

«Egin dezagun otoitz. Jainko ahalguztiduna, egiguzu Pazko Sakramentu honetan hartu dugun graziak iraun dezala beti gure bihotzetan. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. AMEN».



# **Ostiral gau bat**

Jon Urrestilla Urizabal  
Garaialde Lizeoa  
Urretxu



Hamar t'erdiak dira. Ai ama! *Un, dos, tres*-a hasita egongo da jadanik. Geroz eta gehiago kostatzen zait fregatzea. «Una sola gota es capaz de eliminar toda la grasa». Kaka zaharra. Hemen, indarrez eragiten ez badiozu Scotch-Bri-teari, ez dago zikinkeria kentzerik. Beno, espartzua baino hobe bada gutxienez. «Joxepi, lagundu nazan ontziok garbitzen. Noizpait hire etxean hik bakarrik egin beharko dun eta». Ai amatxo! Zenbait gogoratzen zaitudan, eta azken aldian gehiago. Piztu dezadan telebista, ea ez dudan subasta osoa galtzen.

Hor bai diru pila ematen dutela. Banco Vizcayak edo horrek ez dakit zenbat milioi ematen dituen. Nolako diru pila. «Neska, jan ezan dena, gerra garaian eduki izan bage-nu platerean utzi duana, zein pozik egongo ginatekeen, ezta ama?». Eta nik irriparre batekin Mari Carmeni aurpegia ateratzen nion. «Amona, zergatik jan behar dut dena goseak ez banago?». Beti gauza berdina.

«No hermanas, no hay respeto entre la juventud en estos días, y sólo la palabra de Dios puede salvar el mundo». Amen. Don Jose Mariak ahots goxoagoa zuen. «Ama, zer iruditzen zaizu Naiararen soinekoa?». Esan nion, ba, hotz handiegia zegoela jantzi hori jazteko. Atxisss! «No

hay respeto, hermanas». Telebistakoek ez dute ba katarroa harrapatzen horrelako gona motzekin.

«Uda da, ken itzazu soineko bero horiek». No hay respeto. «Ez Mari Carmen, lutoa gorde behar dinat». Nolako izerdi tanta handiak erortzen zitzaizkidan bizkarretik behera, nahiz eta bero ez nintzen. Agian soineko meheago bat erosi behar izango nukeen, baina ez zitzaidan aproposa iruditzen horrelako egoera batean erroa erosten ibiltzerik. Ez Maria Dolores, Patxiren emaztea bezala. Hura ni baino zaharragoa den arren, edo gutxienez dituen zimurrekin hala dirudi, hogeitaz urte gazteago balitz bezala jazten da. Esaten zidan bai nire Joxek andre horrek ez zituela hankak lurrean. Gaur mezetara ere ilea tintaturik joan da, eta gainera permanentea eginda, dituen urteak ezkutatu nahi balitu bezala.

«Bueno, y como siempre que tenemos tres regalos, tenemos que dejar uno». Hamaikak laurden gutxi. Gizon horrek nahiz eta pottolitoa dagoen badu horrelako elegantzia bat, eta ahotsa ere goxoa du, Don Jose Mariaren antzekoa; gainera nahiko kultoa da, lehengoan ingelesez edo frantsesez edo jardun zen rokero batekin. Ah! Bihar Mari Carmenek deitzen didanean ez zait ahaztu behar galdetzea ia Naiara ingeleseko klaseetara joaten hasia den, lehengoan okindegiko andreak esan bait zidan bere alaba Ianire, Naiararekin joaten zela partikularrera. Biharko afarirako ez daukat ezertxo ere pentsatuta. «Vuelva la semana que viene a que terminemos de quitarle los dientes para poder ponerle la dentadura postiza». «Amona Joxepi, begira! Hortz bat erori zait». Gezurra dirudi zein azkar pasatzen den denbora batzutan, umeak gaztetuz eta zaharrak zahartuz, eta beste batzutan zein gogor egiten den ohetik jaiki beharra.

Joxe gutxienez banu nire ondoan bizitzen jarraitzen laguntzeko. «Trankil Joxepi, beste toki hobe batean dago

orain Joxe, gu bion elkarrizketa entzuten ziur aski». Bai, baina hemen utzi nau bizitza honetan bakarrik. «Ama, zergatik egiten du hainbeste negar amonak?». «Joxepi, aita hil da». Joxe hiltzean ulertu nuen amaren min-aurpegia. «Naiara, haundia egiten zarenean ulertuko duzu». Zoritxarrez.

Joxepi, neska, ez hadi orain negarrez hasi, kontxo! Zer nolako kotxe ederra galdu duten konkurtsanteek. Hain gazteak dira ezen aurpegian ikusten bait zaizkie bizitzeko irrika eta ilusioa. Nork ez lituzke hogeitabost urte eduki nahi izango orain? «Amona, zergatik duzu zuk ile txuria eta nik beltza?». «Hainbeste aldiz garbituta kolorea galdu duelako». Hori bai irribarre alai Naiararena; «Ez esan gezurrik amona, ez naiz tuntuna». Ni bai ordea, pastaz egindako hortz hauekin atzera eta aurrera ibiltzea hautatu nuenean.

Gaueko hamaikak dira. Bihar plazara joateko goiz jaiki behar eta beranduen oheratzen naizen eguna hauxe izan behar. Urteak aurrera doazenean gero eta denbora gehiago behar dut deskantsatzeko, eta gero eta errexago nekatzen naiz. Oraindik gogoan dut Mari Carmen eta Iñakik negarrez pasatzen zutenean gau osoa, eta ni haien inguruan gau osoan esnatuta, nekatuta nengoela nabaritu gabe. «Joxepi, hator ohera. Isildu ditun, eta hik lo egin behar dun». Berak bai lo egin zuela azkenean. Joxe gizarajoa. «Ama, zergatik egiten du hainbeste negar amonak?». Mina, «Trankil Joxepi. Edozertarako hemen gaituzu», samina, tristeziaren dantzari argitsu gorriak, intsentsua, «Jauna, har ezazu zeure aurpegiaren argitan...», negarra, kanpai hots mingotsa, «Joxepi gizarajoa», «Bakarrik gelditzea ere», «Gure anaia maitea joan zaigu», organoa, garrasia,...

«Y como cada vez que tenemos tres tarjetitas, hemos de dejar un regalo». Bizitza aurrera doa bai, eta badira urteak kontuok pasa direla. Garrasia oraindik barruan dau-

kat. Beno, bihar plazara joatean zer erosi behar dudan pentsatu behar dut. Bakarrik nagoenez, ez dut gauza handirik behar: porruak, azenarioak, tipula eta letxuga pare bat. «Amona, zergatik ez dituzu zuk poteak erosten, amak bezala? «... y han perdido todas estas latas de garbanzos en conserva!». Hori bai itxura txarra dutena. «Joxepi, laguniezadan janaria prestatzen behiak jaisten ditunanean». Ama, zenbait gogoratzen zaitudan.

«Joxepi, aita hil egin dute». Orduan bai negarra eta mina. Eta gosea gerra ondoren. Estraperloa, arto-ogia, lan izugarria... Esnea jaitsi, belarra bildu, erromerian senargaia bilatu,... «Ainarak mediku izan nahi duela dio, ama. Edozein karrera egingo duela eta, ingeleseko klaseetara joan behar da». «Joxepi, norbaitek prezioa galdetzen badin, “zinko reales” esaion». Eta orduan castellanoko idearik ez nuela pentsatzea.

Hamaikak eta laurden. *Un, dos, tres*-a bukatzear egongo da. Opari on guztiak galdu dituzte, bueno, apartamentua ez da oraindik atera. Gure Mari Carmenen apartamentua bai polita. Egongelako kortinak zoragarri politak geratu zitzaizkion! Eta nolako sukalde modernoa duen gainera, mikroondas eta guzti! Halere, nik neuk ez diet horrelako trastei inportantzia gehiegirik ematen. Ainara txikia zenean, ordea, oso ondo etortzen zen esnea berotzeko. Gainera gosariak berotzeko erabiltzen zuten, baina Ainara txikia zenean aterra zioten probetxu handien. Gaueko ordubiak, buaaa, RAM esnea mikro-ondasera, goizeko seirak, despertadorea, negarra, mikro-ondasera. «Joxepi, jaitsi ezan behia lehenbait-lehen».

Don Jose Mariak esaten zuenez Ainara, Mari Carmen eta neuk antz izugarria genuen, normalena dena baino gehiago. Gainera oso ondo konpontzen gara elkarrekin. «Ama,

aita hil da eta ezin duzu deus egin hemen bakarrik irauten. Zatoz gurekin, gure etxera, han bizitzera». Oso gutxitan diskutitu dugu, eta ez dut gogoratzen inoiz zaplasteko bat eman diodanik. «Bai amona, etorri gurekin bizitzera. Horrela egunero ikusiko zaitut». Iñakirekin aldiz tratua ezberdina da. Aspaldidanik ez dut ikusi, nahiz eta askotan deitzen didan telefonoz. «Ama, ez ezazu esan traba bat izango zarenik, badakizu gezurra dela». Iñakik askotan esaten dit ni ikusteko gogoia duela. Nolako gezurtiak denak! Badakit bizitza horrelakoa dela, zure seme-alabentzat hoberena bilatu ondoren, beraiek oso gutxitan eskertzen dizutela behar bezala. Nire ahizpak zaindu zuen ama behartuta, ni berriz bakarrik nago, eta ziur aski Ainara haztean bere ama geriatrikoan sartu nahi izango du.

«Ama, berriz esaten dizut ezin zarela hemen, bakarrik bizitzen jarraitu». Ez al dira ba konturatzen nire edadeko pertsona bat bapatean beraien etxean sartzeak zer suposatuko lukeen? «Sí, ama, venga a vivir con nosotros». Gainera nire alabak senar erdalduna aukeratu behar. Eskerrak Ainarak euskaraz badakien, gainera ez dakit nire suhiak gustokoa nauen. Nahiago dut etxean bakarrik bizitzen gelditu, nire alabaren etxean aurpegi desatseginak ikusi baino. Oraindik nire lana egin dezaket eta badakit zein den nire tokia.

«Lo siento, pero han perdido ustedes: ¡Este maravilloso apartamento en la Manga del Mar Menor!». Banekian ba nik oraindik apartamentua irten ez zela. Gazte gizarajoak, beraien bizitza hasteko laguntzatxo bat ez zaie ba oso gaizki etorriko. «Dirua aurreztu behar diagu, Joxe, herrira bizitzera joateko, horrela gure seme-alabak hobeto bizi ahal izango dituk, ikasi eta hainbeste lan egin beharrik gabe». Joxe gaixoa. Zahartzaroa batera bizitzen hasi behar genuenean

joan egin hintzaidan beste mundura. Zenbait maite haudan oraindik».

Erromeria hartan dantzatzen ari ginela zurekin ezkondu nahi nuen galdetzean, munduko neskatilarik alaiena sentitu nintzen, eta horko azafatak baino askosaz ere aderragoa. «Amona, zergatik dituzu horrenbeste zimurdura?». «Negar asko egin eta gero, azala tolesten joaten delako penak gordez».

Apaizak dioen bezala: «En esta sociedad se pretenden esconder los defectos, tratando a los débiles y enfermos como objetos perturbantes de la armonía del sistema». Horiek bai hitz potoloak. Don Jose Maria askoz hobearen zen, gutxienez ulertu egiten bait genion. Oraindik gogoan dut zelako lotsakabeki agertu den Maria Dolores mezetara, ile faltsu horiekin. Agian zahartzaroaren beldur izango da. Agian ulertu egiten diot.

Hamaika t'erdia heldu dira jadanik. Azkenik bikote gazte horrek BBV-ko libretoa eraman du, ez dakit zer milioi pila. Eskerrak bizitza honetan noizbait zerbait ongi ateratzen den, nahiz eta gutxitan gertatu hori. Denok dakigu hiltzeko jaio garela («Ama, ez esan horrelako gauzak»), baina nahiko edadetua zaren arte ez zara esaldi horrek adierazten duen inpotentziaz konturatzen. «Amona, zergatik hiltzen da jendea?». «Ez dakit Ainara, baina jaiotzen zarenean ziur dagoen gauza bakarra hil egingo zarela da».

Sukaldea txukuntzen bukatu behar dut. Gezurra dirudi, baina ez dut neregatik egiten, baizik eta oraindik buruan dudalako besteak gustora egoteko egin behar dudala. «Ama, ez ezazu zuk bakarrik lan guztia egin, etorriko naiz ni laguntzera. Bestela, etorri zaitez nirekin bizitzera». Mari Carmenek ez du ulertzen ezin naizela joan. Joatea gustatuko litzaidake, eta behartuko banindu gustora joango nintzateke, bai-



na badakit bere bizitza guztiz aldatuko dudala, eta maite dudalako ez naiz berarekin joaten. «Ama, badirudi ez duzula nirekin bizitzera etorri nahi arrazoi sakonen bategatik. Zure sendia gara, ez al gaituzu maite edo zer?». Zer egin? Joxe, lagundu nazak.

Bihar porruak, azenarioak eta fruta piskat erosita nahikoa izango dut. «Tardará algún tiempo antes de que se acostumbre a masticar con la dentadura». Nere amak ez zuen ba behar izan horrelako hortzik. Haragia jateko horrenbeste komeria egitea ere!

«Tampax, no pasa nada». Amatxo maitea! Ez dute lotsa izpirik edo zer! Hala! Telebista itzali eta kitto. Beno, ohera joateko ordua da. Gabon Joxe, ondo lo egin eta bihar arte Jaungoikoak nahi badu. Jauna, gaur gauean hiltzen banaiz, eraman nazazu Joxerekin. Gure Aita, zeruetan zerana, Santu izan bedi...



# **Romeo eta Julio**

Ibon Iribarren Aristizabal  
Sto. Tomas Lizeoa  
Donostia



Hik, udatiar ezjakin horrek, jakintsutzat daukak hire burua, asko ikusia haizenez gero. Ikustatu dituk Londongo museoetako artelanik gorai patuenak, gozatu Parisko jatetxerik garestienetako jakirik zapoetsuenak, jantzi Milango modaetxeetako jakarik pinpirinenak.

Hik, bidazti handiuste horrek, eguzkiak gehien epeltzen duen kale ertzetik zuzendu dituk beti hire urratsak, ekiak beti sentiarazi dik bere epeltasun atsegina hire aurpegiera politean. Tximistak eta trumoiak ere alde batera zokoratu behar izan ditek hire aurrean.

Baina ekiak kale ertz bat zerrepeltzen duen lez, bazezok laino eta euriak beren men daukaten beste bazter bat. Hik sekula zapaldu ez duan espaloi atal honetan indartsuen erreinua aurkitzen duk. Hortik barna, eguzkiak kategoria larregi zeukak sakoneratzeko, eta bertako biztanle dontsuek gandu eta zirimiria artean irau behar ditek.

Begira, hire limousine beltz dotoretik kide ziztrin bi horietan errepara hinteke. Baina ez, ez dik merezi, ezta? Zertarako? Hik ez daukak begiratua, nola diok hik?, hiri-barrenetara zuzentzeko usadio gozogaberik. Izan ere, negozio pare bat atondu eta aisia egun batzu hartzera jin hintzen hi Los Angelesa, eta ez jende marjinalari so egitera. Haatik,

beraiek hik beha ditzaan beste duintasun balitek, apika istorio interesgarri batez jabetu ahal izango huke, lanbroaren erresuman egunero jazotzen diren askotariko bat baino ez.

Beraien estuasunaz ohartzeko astirik baheuka, ausaz bata Johnny deitzen dela jakingo huke eta hiri puta honetan dauden Johnnyetariko bat gehiago dela irudituko zitzaian arren, berak ere bere ibilerak dauzkala. Eta zera ere jakinen huen, bai, Basakatuen taldeko partaide dela eta talde honek eta Strangersek elkarri berebiziko amorrua diotela eta talde hauetako lagun bat kaleitxi bateko zakarrontzian, lepoa aizto batez zarrastaturik kausitzekotan, erailea nortzuen artean legokeen dudarik ez lukeela txakurren ofizialik memeloenak ere eta Johnnyk berak bere begi ttipi nabarren eta kopeta zabalaren artean, bekainen gainean zehatz-mehatz, behialako liskar bateko ebatondo bat duela eta horregatik daramatzala txima luzeak aurrerantz eta sudurra beste gatazka batean okertu ziotela. Eta parke horretan begizatzen dituan senar-emazte alegeren orde bestea gazteagan ezarriko bahitu hire antejodun begiak, agian ertzez erratu dela otuko zitzaian, hain bait da lerdena bere adats iluna, hain disdiratsuak bere ernamuin urdinskak, hain bikainak bere trazak, ezen ez bait zirudik euriaren mirabea, ortze osoaren printzea baino eta menturaz bere sotiltasunarengatik Romeo izenaz ezagutzen dutela hautemanen huke eta hiri erdiko neskek berarekin ilunabar batez irtetearren arima deabruari salduko lioketela eta bera ere Basakatuen partaide dela eta beren buruzagiari Job esaten diotela eta bera dela Joben kuttuna, beste kide guztien kuttuna den bezala.

Baina hik gurago duk zigarro bat piztu eta hire gidari kapeladunari bizkorrago ibil dadin agintzen diok, hi lako erraldoi batentzat inurritegi nimiño bat den erresuma enoratuz.

Artean, bi kideak oinkada motelez mugitzen dituk. Johnnyren begirada hodeiertzean galtzen duk, erreinu honetaz bestalde dagoena antzeman plazer duela zirudik. Romeok ostera zoluan ezarri dizkik begiak. Serious zegok bikotea eta mututasunean zebilek, ez omen ditek ahoa zabaltzea merezi duenik idoro. Baina Johnnyk tupustean merezi duen zerbait begiztatu dik.

«Romeo, begira nor datorren», jarri dik jakinaren gainean bere hots finaz. Baina Romeok ez dik bisaia jaso beharrik, bai bait zekik nortzu diren. «Zer egin behar diagu, txo?», itaundu zioke Johnnyk ostera ere.

«Oraingo, ezer ez», ihardetsi zioke, azken batez aurrekaldeari so eginez. «Ikusten al duk erdiko mutil beltzaran hura? Berria al duk?».

«Bai, txikano bat duk. Julio omen dik izena. Aizak, ziur hago ez duala ezer egin nahi? Ez diat nahi gure aurrean Strangers alu horiek kokorika hasterik».

«Nik ez diat txotxolo moduan larrua galdu nahi. Gainera, hiru dituk eta gu bi besterik ez. Lasai orain, txo».

«Koño, koño, zer diagu hemen!», hasi duk txupa gorri bat daraman mutil beltz bat. «Johnny lisiatua eta Romeo panpoxa dituk eta!».

«Txantxa gutxiago, Sam», oldartu zaiok Romeo. «Presaz gabiltzak eta ez diagu zuekin arazorik nahi».

«Uuuuuuuu!», eman zioke beste Stranger batek ulu egiteari. «Potrorik ez ala?».

«Zuei, zuei falta zaizkizue potroak!», eskuhartu dik Johnnyk erabat gorrituz, odolak bol-bol zegiok buruan. «Txikano puta hori ekarri behar guri aurre egiteko! Gogoz emango nitek hiri zartako pare bat, Steve, biok bakarrik».

«Beste arrakala bat nahi duk ala? Ni prest natxiok, nahi duanean».

«Johnny, ez hadi babua izan», esan zioke Romeok garraztasunez. «Gu bagoazek. Baina, Steve, ez duk pikatu behar neska hura kendu nialako, bizitza horrelakoa duk».

«Hi, sasikumea, hator hona», ekin zioke garraisiari besteak, hudigoak zeharo itsuturik. «Behar duana eman behar diat orain!».

«Ez duk gure Steve oratu behar, Sam, laga dezakek nahi baduk eta bereak eta bi emanen zizkioagu», esan dio Johnnyk algara artean.

«Ez, orain ez», esetsi die Romeok. «Steve, hurrengo larunbatean, zortzietan, orube zaharrean. Aiztorik gabe».

«Pozez. Orduantxe konponduko dizkiagu kontuak».

Strangersak beren bidetik aldentzen direnean, Johnny eguzkia bezain disdiratsu azaltzen duk, begietan erlantz berezi bat zeukak.

«Txo, niri utzi behar hidan Steverena egiten, bere sudur itsusia puskatu nahi nioan».

«Baita zera ere! Johnny, metro hirurogeitamar doi-doi neurtzen duk eta bera bi metroetatik hurbil zebilek».

«Eta nola irabazi behar diok hik?».

«Ez zekiat, baina nola edo hala beraietaz libratu behar gintuan eta bestela ez zigutean joaten utziko, ezta? Uztak hori orain, motel. Esaidak, antzeman al duk txikanoak ez duela txintik ere esan zipoka hasi hatzaionean?».

«Gure beldur izango huan», ihardetsi zioke Johnnyk, zailantzan jar ez daitekeen egia nabarmena dioenaren segurtasunaz.



«Beldurrez egoteko zio galanta zian ba! Ez, mutil hori ezberdina duk, txo».

«Strangerrena?».

«Guztiona. Gutako oiloenak ere irain bati erantzun egingo zioan. Mutil hori ez duk taldeen arteko iskanbiletan murgiltzeko jaio, nire ustez bederen. Nik jator aurpegia ere igertzen zioat».

«Bibote puta horrekin? Baita zera ere!».

«Beno, ez dik ajola. Goazemak besteengana, ez diat beste istilurik eduki nahi».

Hauetako ikuskizun tristeetan present izango bahintz gutxi baino gutxiago gustatuko litzaizkiake, negoziogizon sofistikatu horri. Hori daukak hik lur eremu hauek ekiditeko kari nagusia. Baina, ez al zaik iruditu txikanoa arras prometagarria dela? Ez, noski, hire asti miragarria iriontzea huke halako scruffy bati adi egotea. Non demontre ote nian nik burua?».

Bada, txikanoa Mexicotik iritsi berri den mutil gajo bat baino ez duk egiaz. Ama sobredosi batez hil zitzaioan eta bere anaia bakarra erailketaz salatu ziaten eta hogeitamasei urte bota. Aitaren berririk ez dik bere hamazazpi urtetan izan. Julio ere ganduaren erresumakoa duk, baina ernamuin izutiak dauzkan gizarajo hau eguzkitarako munduratu ziaten, ez zeukak dongakeria izpirik ere. Los Angelesa heltzerakoan, Stevek eta Samek txarto asmatu istorio kaskar bat esan eta, eginda zegok, Julio Zapata Stranger bat duk jada.

Baina bera ez duk sekula Stranger bat izanen, ez bait zeukak aiherrik Basakatuekiko, eta hau duk Stranger bat izateko baldintzarik premiazko eta derrigorrezkoena. Eta txikanoak jakinguraz miatu dizkik Johnny eta Romeo. Bera ere Romeoren lerdentasunarekin txunditurik geratu duk,

baina Juliok ez dik bekaizkeriarik sentitu, bere ipo apalak lagatzen ez dionez gero. Aitzitik, Romeoren irudi txairoa ahantzi ezinik zegok eta laket duelakoan nauk. Zer esanen huke hik, businessman lanpetu horrek?

«Zer Julio, zer iruditu zaik Katu parean?», iruzkindu zioke Sam gihartsuak taldearen bilkura puntua den kaleitxirantz abiatzen direla.

«Ez zekiat», hasi duk hots xumeaz. «Bietarik bajuenak, Johnnyk, ausart samarra zirudik, ezta? Romeo horrek aldiz, nahiko guapoa, ez duk hala?». Juliok bere bi solaskideen begirada gaitzesleen aitzinean mokoia itxi eta sama makurtzea besterik ez dik.

«Aizak, txo. Johnny ez duk harro puta bat baino», jakinerazi zioke Stevek mesprezuz gainezka. «Romeori dagokionean, konturik nahi ez baduk, ez ezak aipa»

Txikanoak ezin dik Romeoren irudia burutik urrundu baina. Hurrengo goizean Tommyren Okindegira abiatu behar huke. Ogi eta pastel lurrun gozoaren artean salmahaira so egin eta bertan gazte triste batek hots mehe eta edukatuz zer gura duan galdetuko liake. Eta orduantxe Romeo karrikan barruratzeko prest antzemanen huke. Izan ere, Romeok bihar ez dik Unibertsitatera joateko apetarik izanen eta... A, jakina, Zuzenbide ikasketak egiten ari duk. Unibertsitate Publikoan sartzea erdietsi zian, ikasle gogatsua duk eta. Baina, aipatu moduan, bihar ez dik desirarik edukiren eta ogia eroatera doanean, mostradoreko mutilarengan Julioaren estampa ikaratia ezaguturen dik.

«Koño, txikanoa duk eta!», esanen zioke, baina ez mesprezuz, harriduraz baino. «Iritsi berria haiz eta jadanik ogibidea topatu duk?»

«...»

«Zer moduz doakik hire lagun berriekin?».

«Ongi», ihardetsiren zio, baina gezurretan ariko duk, ez bait dik guztiek arbuioz tratatzen dutela ezagun dadin nahi.

«Non lo egin duk ba?».

«Oraino ez», ametituko dik ia negar egiterainoko samintasun batez.

«Kalegorrian egin al duk lo aste honetan?».

«...», isiltasun horrek baiezko trazak izanen dizkik.

Une horretan, bizitza guztian bitan jazotzen ez den zerbait gertatuko duk, zerbait nahaspilatuko zaiok Romeori kaskoan.

«Julio, hator nirean lo egitera nahi baduk».

Juliok nora galduren dik. Izan ere, adarra jotzen ari al zaiok?, zer deritzok hik?

«Barrez, ala?».

«Julio, ez zekiat zergatik ari naizen hiri aterpea eskaintzen, gogoko haudalako agian, baina damutu egingen nauk ziurrenez. Beraz, hobe duk lehen bait lehen onartzea, egun batzuz bederen. Hamabietan irtengo al haiz hemendik?».

«Er, bai».

«Ederto, orduan hamabietan hementxe. Gauza bakarra, txintik ere ez honetaz inori, ongi? Tira, ni banoak, adio!».

Eta txikano sinple hau mututurik lagako dik, zer egin jakin ezean.

Romeok ere ez zio inori ezer esango, zergatik jakin ez arren. Job berarekin aztoratuko denaren beldur duk apika,

baina nork esan? Gauza duk biak elkarrekin ederto konponduko direla, eta Romeoren arreba Annek txit gustoko izango duela txikano bibotedun hura.

Eta hik, amodio istorioak hain maite dituan horrek, ederrena galduren duk. Datorren ostiral gauean goizero amona zaharrek usoei ogi papurrak botatzen dizkieten parkera pasealditxo bat ematera animatuko bahintz, silueta bi antzemanen hituzke, besarkaturik, belarrira maitasun hitzak xuxurlatuz, beraien ezpainak musu hezeen bidez elkartuz, eta azkenean, ia jabetu barik, gauak berak balio bezala, zera adituren huke:

«Maite haut, Julio».

«Eta nik hi, Romeo».

Ziurrenik ikuskizun lizun horrek goragalea sortaraziko likek, eta beraien patu esteiari hau ondo merezia dutela oldoztuko huke. Baina egiaz bikote hau ez duk inoiz lainoaren erreinutik hain asago egon. Ekiaren eremurik epelenean zeudek orain, honen printzak bete-betea senti ditzaketelarik.

Baina, behingoz sikanera, arrazoia eman behar diat. Izan ere, laister itzuliren dituk biak euripera, eta nola gainera. Larunbatean bertan, bi lagunek karrika ilun batetik orube batera joko diteke eta batak hala esanen zioke besteari:

«Johnny, maitasun kontuak zeuzkeat».

«Koño, hori bait dela berria!», erantzunen zioke txantxa delakoan. «Neska batek ez dik hirekin egon nahi? Tira, niri ere gertatu izan zaidak batzutan eta hemen negok».

«Ez duk ulertzen, ez duk broma bat. Berak gogoko naik, bai, baina ez duk neska bat. Txikanoa duk».

Johnnyk aurpegira eginen zioke so, erregutuz ia, guztia narrita bat besterik ez dela ziurtatzeko, baina Romeoren begietan egia ikusiko dik.

«Hi, hi ez! Nola egin duk hori! Zergatik?».

«Horrek ez dik inporta orain», ihardetsiko zioke itaunari itzurtzeko. «Gauza bakar batek axola dik orain. Joben aurrean salatu behar nauk?».

Johnnyk hasperen luze bat bota eta bere bizitzako erabakirik mingarrienetako bat harturen dik.

«Ez».

«Johnny, eskerrik asko», basarkatzeko keinua eginen dik, baina bere kideak beso batez alderatu eginen dik.

«Ez zegok ezer eskertu beharrik», esango zioke hotz. «Hementxe zegok».

«Zer koño ari duk egiten ipotx hau hemen? Biok bakarrik borrokatzekotan geratu gintuan!».

«Eta hala izango duk, Steve. Biok bakarrik».

«Ez, Romeo», eskuhartuko dik Johnnyk. «Borroka hau nigatik sortu huan eta nik konponduko diat».

«Ezta pentsatu ere, ni nauk borrokatu beharrekoa».

«Zergatik ez?», onartuko dik Strangerrak. «Hala nahi baduk, hala bedi».

Eta Romeok eririk mugitzeko astia izan baino lehen bi mutilak lurrian zehar bueltaka ikusiren dizkik, orain Johnnyk kolpea jo, orain Stevek ukalondoa luza. Stevek jipoi ederra emanen lioke edonoiz Johnnyri, baina larunbat horretan Johnnyk irakiten eduki ohi duen odola sekula baino hotzago izanen dik eta bereak eta bi luzatuko zizkiok

Strangerrari. Apika ikuskizun basatiegia duk hiretzat, baina gustatuko litzaiake, dudarik ez diat.

Baina, azken finean, zuzen hago, andana honen patua zirimiria baino gehiago ekaitza duk eta tximista batek betebete harrapatu behar dik Johnny. Romeok amesgaizto bat lez gomutatuko dik Stevek aiztoa aterako dueneko, lokamutsa bezala sabelean iltzatuko dioneko. Baina ez duk ametsa izanen, txit erreala izanen duk.

«Putakumea! Hil egin duk! Kabroia, akatu egin behar haut!», egingen dik intziri Johnnyren gorpua odol artean ikustean.

«Zer koño, hire laguna bezala amaitu nahi duk? Mari-koia! Zer uste huen, ez genekiela?», erranen zioz erdeinaz Romeoren ikara ñikada antzematean. «Bagenekian, bai, eta horregatik garbitu egin behar haut!».

Ordukoa ez dik Romeok hil dadin artean ahantziko. Aiherrak itsuturik aiztoa kenduko zioz Strangerrari, eta uherdura horrek gidaturik sartuko zioz labana behin eta berriro, odolaren gazitasuna ahoan dastatuz, eskuak likido gorritan murgilduz. Eta horrela iraunen dik, artean malkoak darizkiola, norbait hurbiltzen ari dela ohar dadin arte. Orduan izua bere buruaz jabetuko duk eta arinetan hasiko duk. Ann eta Juliori mezu bat lagako zioz gertatutakoa eta ahal bezain zalu itzuliko dela esanez, eta Phoenixerako lehen busa hartuko dik, izuak bere men izanen bait dik Romeo. Hik antzeman hezake Katua autobus geltokian, bapo afaldu eta gero hire limousine beltzean hotelera hoanean, baina ziurrenez loguratsuegi egongo haiz ezertaz konturatzeko.

Baina ez dik hemen amaiera izanen pasadizo honek. Behingoz, erreinu honetako bi etsai talderik amorratuena

bat eginen ditek. Xedea, hik ere ezagutuko huke, hain enpresari zuhurra haizen horrek, marikoi pare hori behin betiko akabatzea. Eta jaramon egingo bahit, Stratford kalearen bazter batean geldituko hintzateke eta txikano puta hau heriotzeraino nola jipoitzen duten ikusiko huke eta gero, mantso-mantso, beste guztiek alde egindakoan, Julioaren ubeldura, hematoma eta zauri lazgarriekin potroak zintzurreraino igoko litzaizkiake, ausaz erresuma honen doilorkeriaz jabetuz.

Hi jadanik kafe bat edanez aireportuan hagoenean, mutil eder batek egia jakinda anpulo saminak isuriko dizkik. Eta hik maletak fakturatzen dituanean, gazte sotil hori urrats makalez komisaldegira jotzen ikusiko ditek. Eta negarrez behin ere gehiago, inoiz baino eurijasa bortitzagoa antzemanen duelako ortzean.





# **Ziutate postmoderno historiagabea**

Xabier Ganzarain Etxaniz  
Karmelo Etxegarai Ikastola  
Azpeitia



Euria gelditu eta eguzkia atera berri den une honetan, eguzki printzek galipotezko karrika bustietan sortzen dituzten dirdirek begiak istera bultzatu dute. Desiderium ziutateko galipotezko karrika tristeetan gora eta behera maiz ikusten ahal duzu, batipat neguko egun haizetsuetan, bere betaurreko berriak parkeetako loreei erakusten, hauek ez bait dute itsusiak direnik esaten, nahiz eta hark segituan nabaritu ez direla beraien gustokoak.

Desiderium hiri grisa da, ziutate postmoderno historia-gabea. Bertan aurkitu ditzaket bizitzeko behar ditudan hiru gauzak: alkoholez bustitako gau hitsak, nire gustoko whisky gogorra duten tabernak eta arkupetan eserita bibolina jotzen diharduten agure negartiak. Galipotezko karrika tris-teak dira Desiderium ziutatearen ezaugarri nagusia, karrika triste maitatuak, zapalduak, birmoldatuak, puskatuak, zultuak, sekula ez mirestuak. Desiderium ziutatean munduaren hondakinak bizi gara, Donostia edo Marbella bezalako hiri aberatsek onartu ez dituzten hondakin guztiak, eskoria guztia. Desideriumen ez da pertsonaia ospetsurik bizi, telebistan ikusten dituzun pertsonaia txit interesgarriak, hemen dena da monotonoa, dena hitsa. Hemen denek egiten dituzte lan zikinak, jango bada. Hemen ez da legerik, ez legegizonik, ez politikorik, ez diplomaziarik, ez enbaxadarik. He-

men denok galipotezko karrika tristen inguruan bizi gara, idazleak, bibolin-joleak, tabernariak, loteria saltzaileak, kitarra-joleak, artistak, aktoreak, pailazoak (pailazo hitsak), eta nola ez, etxekoandreak. Desideriumen bizi gara zapalduak, marginatuak, ezohizkoak, «homeless» famatuak, moz-kortiak, jokalaria porrokatuak, drogazaleak, amorante etsituak... Hemen bizi gara euskaldunak, beltzak, ezkertiak eta ezkertiarak, marxistak, utopia-zaleak, ameslariak, filosofoak, sistematik at gauden guztiak. Azken finean Desiderium izugarriko mosaiko gris bat da, puntu txuri eta beltzak dituena.

Martin idazle ezkertia, euskalduna da eta bere aberritik urrun, Desideriumen bizi da. Whisky gogorraz bustitako gauak ditu maite. Martin eta lagunak Chopin-en «Marcha fúnebre» entzun ohi den tabernako mahai borobilaren inguruan esertzen dira gauero eta elkarri bururatu zaizkien kezka azaltzen dizkiete. Ipuin ugari ere idatzi ohi dituzte mahai beraren inguruan eserita daudelarik, whiskyak ematen dien inspirazioak betetzen ditu beren orri zuriak.

Desiderium hiri krudela da. Erdi-erdiatik igarotzen den Desolatio ibaiak hainbat hilotz hartu ditu jadanik, suizidio maila haundiena Desiderium ziutateak du. Desiderium ziu-tate bortitza da, doilorra. Zoritxarrez gure patuak hemen bizitzera behartzen gaitu, ezin dugu ihes egin, ezta amestu ere. Ihes egiteko modu bakarra hiltzea litzateke. Geure lana ahal dugun txukunena egin eta gero geure bizitza bizitzen saiatzen gara, nahiz eta batzuk, lanak itota hiltzen diren, zertarako den bizitza jakitera iritsi gabe, Artzek aspaldi esan zuen lez.

Martini Desolatio zeharkatzen duten zubi berrietatik pasiatzea gustatzen zaio, liburu berriren bat eskuetan duela, zigarro rubioa ezpainetan eta whisky botila bat poltsikoan.

Joseba Sarrionandiaren liburuak ditu maite, batez ere bere ipuinak, berarentzat ez da hura baino idazle hobeagorik, bere lagunek gaitzesten badute ere. Martinek ipuinak izkiri-riatzea du gustokoena. Gero bere ipuinak inork irakurriko ez dituela jakin badakien arren, ez dio sekula izkiriari utzi.

Desiderium ziutate amaigabea da, egunero zertxobait hazten dela dirudi. Galipotezko karrika tristeak gero eta ugariagoak dira, etxe zantarrak bezalaxe. Desolatio ibaiak aspaldi utzi zion ur gardenak eramateari, egun ez du ur zikina besterik eramaten. Hain estua den Desolatiok, ur zikinak daramatzanean oraindik estuagoa dirudi. Desolatio ibaia itsasoan hiltzen da, itsasoa lurmuturren batean hiltzen den bezalaxe, edo lurmuturren bat itsasoan.

Martinek ez du seniderik, denak galdu zituen. Ama bera jaiotzean hil zen, aita bi urte geroago. Ez du anaiarik ez eta arrebarik ere. Lehengusu aberats batzu ditu, baina berak ez ditu ikusi ere egin nahi. Ezin esan daiteke Martin ongi bizi denik, bere ipuinak argitaratzea oso zail egiten zaio. Ahal duen moduan bizi da. Askotan ez du jaten; whisky botila ondoan badu, berarentzat nahikoa da. Egunkarietarako artikuluak idaztetik bizi da gehienbat. Ez du aspaldian arropa berririk erosi, eta bere maiteenekin dabil beti: duela hamabost urteko zapatak, antezko prakak eta alkandora eta soingaineko beltz bat. Ez du aterkirik eta gainera egun hai-zetsuak ditu maite. Gorroto ditu egun eguzkitsuak, gorroto egun euritsuak, gorroto egun ilunak, gorroto ditu egunak. Elurra du maite. Elurra, berak dioenez, hain argia izanik, dena iluntzen duen zerbait magikoa da. Elurra eta haizea egiten duen egunetan bera zoriontsu da.

Desiderium ziutate gordina da eta ni, Martin, beraren esklabu. Galipotezko karrika tristeek bereganatu egiten nau-

te. Nik behera begiratzeko ohitura madarikatu horrekin jarraitzen dut, nahiz eta jakin galipotezko karrika tristeak beti bezain gris eta triste daudela, nahiz eta jakin Desiderium ziutateko jendetzaren malko erraldoiak berriz bustiko nauela. Desiderium ziutateko lorategietan loreek ez diete eguzkiari so egiten, ilargiari baizik, eta aspertuta daude beti aurpegi berdina ikusten. Soilik lorategiko erreginek, tulipan beltzek, dute eguzkiari begiratzeko eskubide bitxia. Lorategi hauetan elkartzen dira agure bibolin-joleak beraien gaztetako jolasez oroitzen, sufrimenduak kontatzen, pozak... ez, gaztetan ez zuten pozik ezagutu, horregatik etorri ziren arraina uretan sentitzen den bezala aurkituko ziren ziutatera: Desideriuma.

Martinek zera dio askotan: «Optimismoa ez da existitzen, pesimismoaren eskilara hits mugagabea existitzen da soilik». Martinek Schopenhauer eta bere teoriak ditu maite, existentzialismoa maite duen bezalaxe. Martin gaur joan da azken aldiz Dione tabernara, bere lagun hitsekin elkartzen den tabernara, whisky eskoziarra edaten duen tabernara, Chopin-en «Marcha fúnebre» (bai, gaztelaniaz) entzuten duen tabernara, Desiderium ziutatean hain ugari diren taberna horietako batetara, galipotezko karrika tristeak gogoratzeko arrazoi bat ematen dion tabernara, Desideriumera zergatik etorri zen gogora ekartzen dion tabernara, galtzailleen ziutatea hain hitsa zergatik den gogora ekartzen dion tabernara. Martinek Desiderium bezalako historiagabeko ziutate batean ez du lehena edo iragana aipatzen, baina nik, Teofilok, bere lagunik onenak, badakit berak nostalgia sentitzen duela. Badakit ere Martinek bere buruaz beste egingo duela, Melancholia zubitik Desolatio ibaira jauzi egingo duela, bere nostalgia desolamendu bihurtuko delako. Bera iritsi bait da bizitza zertarako den jakitera, horregatik egin du bere buruaz beste, horregatik egin du jauzi Desolatioko ur likitsetara, bizitza honek nazka ematen dio eta.

# **Pailazoak irrifarra galdu du!**

Ainhoa Galparsoro Sarriegi  
Beasaingo B. Institutua  
Beasain





Ama, lehen ikusi dugu ba sudur gorri-gorria zuen pailazoa gezurretazko zezenaren aurretik korrika zapata handiak jantzita eta gero besteak jo dio ba mailuarekin eta erori da ba lurrera kristoren kolpea hartuz eta ibili da ba sokasaltoan eta itzulipurdi ematen ari zela besteak ipurdian ostikada bat jo dionean mahuketatik atera zaio ba bost mila metroko hau baino luzeagoa zen koloretako xixarea eta gero erloju handia zuenari lo zegoela zapata kendu eta galtzerdi gorria urdina horia eta berdea jarri dio ba sudurrean eta pailazo aztiena ziplo gelditu da ba lurrean eta hark poltsan zituen txikle eta txupatxusak banatzen hasi denean nik eskuarekin niregana etortzeko eskatu diodanean etorri da ba eta gero esan dit ba bere sudur gorrian musu emateko eta nik eman diodanean berak eman dit ba txupatxusa eta kopeta gelditu zait ba dena zuri-zuri bere aurpegi-ko margoarekin eta gero zuk kendu didazu ba aitak urtebetetzean oparitutako musuzapi berriarekin eta pailazo aztia esnatu denean poltsan gozoki bila hasi eta aurkitu ez ditue-  
nean txapela kendu eta abrakadabra esan duela eta hark nahi adina gozoki atera zaizkiola ikusi duenean berak ere kendu du ba txapela eta arbadakarba gaizki esan duelako untxi batek kosk egin dio ba atzetik eta gero berriro ere gaizki esan duenean krokodilo batek egin dio ba eta saltoka hasi denean tirakinak jaitsita zituelako galtzak erori eta

belaunerainoko galtzontzilo bildundunak ikusi zaizkio ba eta gero pailazoak barrura sartu direnean elefanteak atera dira ba atzeko nahiz aurreko hanken gainean jarriz neska ile hori baten esanetara eta gero pixagura jarri zaidalako kanpora atera naiz ba ama, ba orduan pailazo hori ikusi dut oinez gurpildun etxerantz baina bere sudur gorri-gorria gurea bezalakoa zen eta zapatak ere eskuetan zeramatzan eta gu bezala ibiltzen zen eta gero pentsatu dut bere etxea ikustera joatea eta ixil-ixilik inguratu naiz harantz eta kaxa batetara igo naiz leihotik begira jarri ahal izateko eta leiho artetik ikusi dut nola sartu den bere gurpildun etxean eta eseri egurrezko aulkitxo batean nekaturik egongo bailitzan eta gero armairutik eskuzapi bat ateratzeko altxatu da eta pertz batean zuen urarekin aurpegiko margoa kendu du eta ur zikina jo eta atetik kanpora bota du bi aldiz pentsatu gabe eta aurpegira berriro begiratu diodanean konturatu naiz aitonek bezala zimurrak zituela hemen kopetan eta hemen eta hemen baina berak ez nau ikusi eh zeren ni ixil-ixilik egon naiz horrela jarrita kaxaren gainean eta gero ontzia utzi eta ohepetik bidebaliza zahar bat atera du eta ezin irekirik ibili da baina azkenean kolpe bat emanda ireki du eta ohe gainean utzi du bidebaliza hutsa berak jazkiak kendu arte eta gero tolestu ditu tirakindun galtzak eta koloretako alkandora eta bidebalizan sartu ditu sudurrarekin, ileordekoarekin eta zapatekin batera eta itxi ondoren atzera ohe azpian sartu du bere bidebaliza zaharra ama, izugarritzko ateraldia izan du ondoren lasai-lasai zegoen ohe gainean eserita eta mahai gainean zegoen lorontzia airean bota du eta ni ustekabean harrapatu nau eta oreka galtzean hankaz gora erori naiz ikaragarritzko zarata atereaz orduan belau-nari begira nengoela gurpildun etxearen atea isten entzun dut eta guztiz izuturik han inguruan zegoen upa baten atzean ezkutatu naiz baina alferrik pailazoz jantzita ibili den gizonak berehala ikusi bait nau eta pailazo aztiari jartzen zion

aurpegi berdina inguratu zait eta eskua luzatu dit altxatzen lagundu asmoz orduan nik burua makurtu dut belauna zutik jartzeko moduan ote nuen begiratzeko eta bera hurbildu eta besoetan hartu nau poliki-poliki bere gurpildun etxearen aurrean dauden eskilaretan uzteko gero barrura sartu eta urratua garbitzeko prest itzuli da nik berak eman didan txupatxusa erakutsi diot eta irrifar goxo bat atera zaio gero zertan nenbilen han galdetu dit karpapean horrelako ikuskizuna izanik eta nik lotsaturik baina sudurra kenduta ikus-teak harritu egin nauela esan diot eta nik pailazoen sudurra gorria zela uste nuela eta ez dakizu zer nolako algara bota duen jendearen aurrean egoteko bakarrik jartzen duela esan aurretik karpatik ateratzean inozokeriak egiten dituen pailazoa desagertu egiten omen da eta orduan zergatik egiten dituen pailazokeriak gizon normala bada eta zergatik aitak bezala ez duen lantegian lan egiten galdetu diot eta oso ondo ezagutzen duen pailazo baten istoria kontatuko didala esan dit ama, behin ba omen zen urruneko herri txiki bate-tan nekazari behartsu bat gau eta egun bere lur zati elkorrean lanean aritzen zena baina lortzen zuen uzta gutxiaren zati handi bat bere nagusiari edo horrelako norbaiti eman behar zion eta askotan emazteak eta lau semeek jatekorik ere ez zuten izaten horrela bostgarren semea jaio zenean zirko bat gertatu zen herrian eta ondobeharrez amak zirkoko emakume bihotzoneko baten eskuetan utzi zuen haurra eta zirkoko abereen artean hazten joan omen zen egunero eguna argitu aurretik jaiki eta zirkoko abere guztiei jaten eta edaten ematen omen zien eta zepilua hartu eta guztiak eskuilatzen omen zituen garbi-garbi utzi arte zerbait jatera joan aurretik eta hogeiren bat urterekin ez zuela balio airean zintzilik ibiltzeko ez eta elefante lehoi zaldi et txakurrekin lan egiteko ere eta sudur gorri bat jarririk jende aurrera bota omen zuten eta zahartu artean inozokeriak egiten aritu omen zen haurrak zoriontsu ikusi

asmoz huraxe omen zen bere poztasun bakarra eta gero berriz esan dit beste batzuetan far guzti haiek min egiten ziotela pailazo gizarajoari iraindu egiten zutela eta nik ez nuela ulertzen esan diodanean oraindik gaztetxo naizela eta ulertuko dudala noizbait erantzun dit eta negarrez hasi dela konturatu naiz orduan ziurrenik hunkitu egin da berak ezagutzen duen pailazoaren bizitzagatik niri ere ez litzaidake hura bezala bizitzea gustatuko ez zituen bere guraso eta anai-arrebak ezagutu eta beti lanean ari zen futbolean jolasteko astirik gabe eta nire laguna bere gorpildun etxera sartu da geroxeago handik pailazoaren sudur gorria ekarri du niretzat eta nik eskerrikasko esan diot benetan oraingoan ez zait ahaztu eta altxatu ondoren eskutik heldu eta karparen ateraino lagundu nau pailazoak eta orduan ihauterietan pailazoz jantziko naizela esan diot eta ez dakizu zer erantzun didan haurrek ez dutela inoiz pailazo jazkirik izan ez eta izango ere ama, zer esan nahi ote zidan?

## **PROSA. B maila**

B.B.B.ko 1. eta 2. kurtsoa,  
L.H.ko 1. gradua eta  
I.E.E.ko 1. zikloa



# **Azken etapa**

J. Ander G. de Kortazar Agirrezabal  
Barandiaran Lizeoa  
Donostia





«Berdintasuna. Etapa erreginatzat geneukanak ez du apartekorik erabaki. Agurainen bukatutakoak baino gutxiago, nahiz eta mailot horia Roche-n soinetik J. Jauregirenera pasatu. Aurreko egunean baino mendi garrantzitsu gehiago igo arren, taldeak ez ziren horrenbeste mugitu, beharbada aukerarik ez zutelako izan eta indarrak parekatuta daudelako. Erlojuaren aurkako proba bari begira J. Jauregik konfidantza baduela esan nahi dezake atzoko erasoak. Bere burua ongi ikusten duenak ekiten dio erasoari.

Berdintasunak lotu egin ditu txirrindulariak. Besteak atzean erraz gelditzen ez direla ikusteak indarrak gorde arazten ditu. Azken egunerako? Beste aukerarik ez bada bai.» (D. V. 1992-4-9)

Bihar izango da nire bizitzako egunik garrantzitsuena; bihar erabakiko da guztia; urte hauetako lanak ordainik bai ote?

Han izango dira helmugan ama, aita, anaia Joxe Miel, honen neska Marixol eta hainbat herritar ere. Agustin tabernaria ere han izango da zalantzarik gabe, halako zaleturik ez bait dut sekula ezagutu; gogoan ditut bailara mailan antolatutako karreretan irabazle suertatzen nintzenetan

ematen zizkidan besarkadak, bai eta hamaika aldiz Kas botila eskuetan zuela entrenamenduetara eramateko prestatzen zen egunak ere. Hura izango zen aurrerantzean nire zaletu sutsuenetariko bat.

Hamar urte inguru nituela Joxe Mielena izandako Torrot hartan hasi nintzen eskolarako bidea egiten; gure etxetik eskolara ez ziren hiruzpalau km. baino gehiago izango eta 20 minutu inguru behar izaten nituen bide lokaztu haiek zeharkatuz eskolarako bidea osatzeko; ez omen zen marka txarra, hala omen zion behintzat Agustinek.

Bizikleta hark, ordea, ez zidan gehiegi iraun; hura pena hartu nuena Maximo txatarreroak bizikleta hark egin beharreko kilometroak eginak zituela esan zidanean; berriz ere oinez egin beharko nuen eskolarako bidea eta maistraren egurra ere probatu behar izan nuen behin baino gehiagotan eguraldia medio berandu heltzeagatik.

Hura ez zen modua eta bizikleta berri bat lortu beharra nuen; gauzak hala, Pelipe okinari laguntzen hasi nintzaion igandetako errepartoan. Igandetean goizeko bostetan jaiki beharra gogorra zen, baina ez eskolara oinez joatea adina; bi duro ematen zizkidan Pelipek errepartoan laguntzeagatik; ez zen gauza handirik, baina ez nuen beste aukerarik bizikleta lortu nahi banuen.

Hiru urte behar izan nituen bigarren eskuko BH hura erosteko; herriko alkatea zenaren semeak saldu zidan, bera, ni baino zaharragoa izanik, motorra erosi nahian zebilen eta.

—Jokin, telebistakoak zain dauzkak; Teleberrirako galdera batzuk egitera etorri omen dituk.

—Esaiek oraintxe noala.

Tira, bizikleta harekin egin nituen hamaika kilometro Ezkio inguruko errepideetan. Eskolatik irteten nintzenean

han aritzen nintzen txirrindulari famatu bat nintzela imajinatuz alde batera eta bestera ilundu arte. Maiz entzun behar izaten nituen etxeratzean alfer bat nintzela eta antzekoak; eskerrak Joxe Mielek nire alde egiten zuen, bestela...

Handik urte pare batera, 1979a izango zen oker ez bango, aita jubilatuta egin zen; nik hamairu urte izango nituen garai hartan. Ordurako Joxe Miel, ni baino zaharragoa izanik, kartero moduan hasia zen lanean Donostian. Nik berriz ametsetan jarraitzen nuen; txirrindularitzarako nuen irrikia gero eta sakonagoa bihurtzen ari zen; gauzak hala, inbertsio berri bat egiteko garaia heldu zela erabaki nuenean, Joxe Mielekin egindako anai arteko tratua xeble horietako bati esker bizikleta berria erosi nuen; oraingoa karreratakoa zen eta ez zitzaidan merkea gertatu.

Hilabete gutxi barru ikasketak utzi nituen. Amari ez zion grazia handirik egin asmo hura agertu nionean ez eta txirrindularia izan nahi nuela aitortu nionean ere; burutik sano ez nengoela ere aditu beharra izan nuen. Ni mediku izatea zen bere ametsa, baina nik ez nuen hari buruz hitzik ere jakin nahi; erabakia nuen nire etorkizuna: txirrindularia izango nintzen.

Orain bapatean Martin datorkit burura; hura ere hor izango da bihar telebista aurrean begirik kendu gabe; haren zaletasuna ere ez zen nolana hiko; gizarajoak, ordea, ez zuen zortetik izan eta biok Ezkioko Txirrindulari Elkartearen sartu eta egun gutxi barru, Zumarragako errepidean entrenatzen ari zela kotxe batek jo eta ametsak uxatu zizkion; bizkar muineko zauria zuela eta elbarrituta gelditu zen; hura izan zen kolpea, hura; txirrindularitza uzteko asmotan ere ibili nintzen, baina tira, ez nuela harekin ezer ere konponduko eta aurrera jarraitzea erabaki nuen.

Auskalo non nengokeen orain txirrindularitza utzi banu...

—Jokin, inporta ez bazaik argia itzaliko diat, berandu duk.

—...ba bai, ongi duk.

Badira bi urte Stefan eta biok talde berdinean gaudela; jatorra deritzot; haseran ez genion elkarri ongi ulertzen, hizkuntzagatik noski; berak ez zuen tutik ere erdaraz egiten, euskaraz berriz, pentsatu ere ez; bestalde nik ere ingelesez ez eta hitzik ere, baina orain nola edo hala ulertzen diogu elkarri.

Zer gertatuko ote da bihar? Irabaziko ote dut? Hamabost segundutako abantaila nahikoa ote da? Eta irabazten ez badut?

Heldu da garaia. Hogeia eta bost kilometro besterik ez dira falta, hemendik ordu erdi batera, akabo. Tira Jokin, animo!!!

Rochek oso denbora ona egin du baina oraindik irabazteko gai naiz, ezin dut aukera hau galdu.

—Bost, ...lau, ...hiru, ...bi, ...bat ...AURRERA!!!

...hemendik berrogeia eta hamar metrotara kurba hartu behar dut; ez dut ezer ere entzuten; bihotzak alde egingo didala dirudi. «Helmugarako hogeia kilometro». Rocheren denbora ezin dut gainditu, hemezortzi minutu eta berrogeia segundu ditut oraindik; ezin dut erritmo honetan segi, bestela, akabo.

—Jokin, hamabost kilometro gelditzen dira oraindik, indarrak neurtu behar dituzu.

«Helmugarako bost kilometro». Gero eta jende gehiago dakusat; zaletuek nere izena esaten dute behin eta berriz; lortu behar dut.

Azken aldapa hau gogorra egiten ari zait; bost egun hauetako nekea nabari dut; ez noa nahi bezain azkar.

«Helmugarako hiru kilometro». Oraindik hiru kilometro falta zaizkit. Azken kilometro hauek amaigabeak dirudite. Zenbat denbora ote daramat?

—Jokin, hogei eta hiru minutu eta erdi daramatzazu!!!

«Helmugarako bi kilometro». Rocheren denbora hogei eta sei minutu eta berrogei eta hamasei segundu izan da.

«Azken kilometroa». Ezin dut denborarik galdu; zangoak lehertzera doazela dirudite. Ezin dut gehiago. Hor dakusat helmuga. Lortu behar dut. Lortu behar dut!!!

Amaitu da guztia.

Akabo EUSKAL HERRIKO XXXII. TXIRRINDULARI ITZULIA.

«ONENAK IRABAZI DU. Jokin Jauregi Euskal Herriko itzuli honetako txirrindulari onena izan da zailentzarik gabe. Bi etapa irabaztea ez dago edozein esku; hainbeste landutako garaipena Euskal Herrian heldu zaio. Ondo merezitakoa. Bide luzea dauka aurrean eta hasi baino ez da egin.» (D. V. 1992-4-10)



# **Errege etzana**

Larraitz Urkia Garmendia  
Sto. Tomas Lizeoa  
Donostia





«Xakea azterketaren artea da»  
Mikhail Botvinnik.  
Munduko txapelduna.

«Xakea irudimena da»  
David Bronstein.  
Maisu handi bat.

«Wenn ihrs nicht fühlt, ihr werdet's  
nicht erjagen. (Sentitu ezean ez duzu  
inoiz lortuko.)»  
Johann Wolfgan Goethe  
Fausto

«Alizia: Xake partidu handi bat da munduan jokatzeko ari dena... Nola gustatuko litzaidakeen bertako jokalaririk izatea! Ez litzaidake inportatutako peiorik izatea baldin eta jokatzeko ahal banu, nahiz eta nahiagoko nukkeen erregina izatea».

Lewis Carroll  
Ispiluan zehar

## I. kapitulua

—Xake! —ihardetsi duk, hik, bigote ttiki beltzaren babesean dauzkaan ezpain finak mugitu dituan gizontxo horrek.

Baina hire aurkako jokalaria, heriotza, ez duk zaldi zuri batek egindako erasoaren beldur, ez eta tablero gaineko fitxa boteretsuenaren erasoaren beldur ere, heriotzak beti irabazten ditu jokaturako norgehiagoka guztiak. Egia esan, hik ez duk irabazteko intentziorik, bizitzak ez bait du errespetatu hire nahirik, errealitateak hire ametsak ozpindu bait ditu. Horregatik, arrazoi horiengatik ez duk bizitzen jarraitu nahi, ez duk jokutzen jarraitu nahi. Hala ere, gizakiak berezko duen bizitzeko senak, apika, jokuan jarraitzera bultzatzen hau, xake partida erdiesteko ahalegina egiteko arrazoa ematen dik, heriotzaren iluntasunak hire bihotz eta buruaren argitasuna itzali artean, behintzat.

Harritu egiten hau hire jolaskidearen itxura aldatzeko erraztasunak, zeinak, eta hire zaldiaren eraso gauzaeztazteagatik, orain, 1944. urtean akabatu hituen 4.500.000 judutarren aurpegi desitxuratuez jabetu ondoren, hauen aiherra igortzen du ahuen luze eta ozenen bitartez. Hi, ordea, ez haiz alatzen egindakoaz, baina oroimen garratz hauek hire zaldia atzerarazteko behar adinbat indar eduki badute. «Baina nolatan damutu munduaren mesederako izan zen ekintza batez?» —itaundu diok heure buruari, bide batez, hire zaldi zuria lasaitu nahian. Azken finean, boterearen erreinura igo hinduten hainbat hitzalditan aipaturako arrazen garbizaletasunean oinarritutako teoriaren gorpuzketa izan huen, gas monoxidoak egindako «garbiketa».

Fite batean, mozorroa aldatu ondoren, heriotza, sunsittu berri duan hiri bateko bazter galdu batean egon zitekeen haur bilakatu eta honen negarra belarriratu dik, hik hil duan amaren titiaren gose den jaioberriaren intziri lazgarria.

Eta honela, hire zaldia inguratuta zegoen errege beltzak jan dik. Bizitzeko itxaropena den kandela, apurka-apurka, heriotzaren haizemateak ahitzen dik eta hire jokatzeko gogo ezak ez du berpizten.

Hire nahiz aurkakoaren fitxen posizioa apuntatu, ez bait haiz heriotzaren zintzotasunaz fido, eta biharko burrukarako indarrak maindire tartean aurkituko dituanaren itxaropenaz oheratu haiz, aurkitu ezean egingo duanaren galderak sortutako dunbuiloa burukoaren azpian ito nahian.

## II. kapitulua

Tertziopelo urdin honek jazten dituen horma artean itotzen ari zait bizitza. Hamairu urte iraun duen harreman «amoroso» bitxi baten ondoren, ezkontzeko mandatu egin dit gaur goizean. Zur eta lur utzi nau nire logelan sartu eta arratsaldeko bostetan ezkonduko garela jakinerazi didanean.

SS-ko soldadu bati agindu bat ematen dion bezala hitze-gin eta inolako sentimendurik agertu gabe, maitasuna, poztasuna azaldu ezean konformismoa edota indiferentzia adieraz zezakeen; bueltaerdi eman eta atea danbateko batez itxi ondoren bere ofizinarantz abiatu dela suposatu dut, egunero egiten duenaren logikari jarraituz.

«Eva Braun, 1931.urtean Hoffman argazki dendara sartu zen gizon moztaka, beltzaran, bibotedun eta iharrari begia botatzea izan huen hire bizitzako akatsik nabarmenena.», errepikatu diot behin eta berriz azken aste honetan nire buruari. Baina nire izakera apetatsuak gizon hura ezagutu eta neureganatzera bultzatu ninduen eta gaurdaino ezin izan dut bigote beltz ttikidun gizonak nigan duen erakarpen-indar eskerga ekidin.

Ezagutu eta urtebetera gure adiskidetasuna, harremanak izen hori nahiz beste edozein jaso badezake, hozten joan zen eta ez hura eta ez nire maitea ez galtzeko ahaleginean, nire buruaz beste egitea begitandu zitzaidan, berak, bere karrera politikorako suposatuko zukeen galeraz konturaturata, horrelakorik ez egitearen truke bere etxera ekarri ninduelarik.

Baina nire maitasuna, agian gutizi soiltzat har daitekeena, bere desinteresak, bere antsikabetasunak itzali zuen aspaldi. Noizbait bilera sozial edo politiko batean bere andre-gai edota lagun baten gisan aurkeztu baninduen, ez dut otutzen. Nire kirolzaletasuna, nire afizioak kendu zizkidan, eta nire lagunartea ikustea debekatu. Piskanaka-piskanaka, berarekin bizitzeak niretzat zekarren galeraz ohartu nintzen, baina ordurako bere izakera posesibo eta berekoiak nire bihotza zarraturik zeukan, inolako askatasun itxaropenik gabe utziaz.

Eta gaur, indiferentzian oinarritutako hamairu urte luze eta neketsu iraundako harreman antzu baten ondoren, berarekin ezkon nadin agindu dit. Bere erresuma erortzear dagoela, ni ere honekin eror nadin, nire bizitza ofizialki berearekin uztartzera behartu nau.

Eta nahiz eta urteen joanak nire maitasuna ospindu duen, azkenean, eta gogoz kontra, lortu ahal izango dut aspaldidanik desio izan nuena: ADOLF HITLERen emazte izatea.

### **III. kapitulua**

Ez dakik duela ordu batzuk egindakoa heriotzarekin jokutzen ari haizen partidua galtzera eramango hauen beste

jokaldi erratu bat denentz, baina, jazotakoa jazota, datorrena datorrela.

Hire mingain zorrotzak, garai batean zuen abileziak hainbeste gorrotatzen huen jende masa hura xake partida bateko peoi garrantzitsuak bailiran gidatzen zuenak, jadanik ez dik aintzina zuen boterearen erdirik ere. Hi, beste baliabiderik ezean, saiatzen haiz heriotza etsiarazten, hire hitzez pakean utzi hazan erregutzen, baina iaotasuna galdu bide dik hire mihi zorrotzak.

Hala ere, hire buro ondoan dagoen logelako ispiluaren aurrean dagoen emakumearen leialtasunak emana dik bizinahi pixka bat eta haatik galdetzen diok heure buruari, hori, egoera horri atxekitzea, ez al den hankasartze bat dena galdua denean, bizitzea txolinkeria bat iruditzen zaianean.

Eta zain hago. Zain, hiltzeko orduaren zain. Zain, heriotzak xake partidua noiz erabakiko duen zain.

Eta galdua duk oro. Galdua hire erresuma, galdua hire Alemania utopikoa. Galdua duk hire ohorea, hire boterea, hire nazionalismo estremistaren oinarria, hire hitz trebezia. Baina... Ez duk galdu oro oraindik, ez. Ez duk galdu hire nortasuna, ez duk galdu hire askatasuna ez eta beti hirearekin irteteko ohitura. Hi ez bait haiz azaren azpiko orria, hire asmoak ez bait dituk ahuntzaren gauerdiko eztulak eraman ditzakeenak. Eta xake partidua galdu behar baduk hire gurariz galduko duala erabaki duk, ez hauela heriotzak hi deituko, baizik eta hik hots egingo dioala berari, ez bait haiz inoren mirabe eta are gutxiago bizitzeari noiz utzi behar dioan esan behar zaion txepel bat.

Arratsaldeko bostak jotzeko minutu bat falta denean xake partidua hik heuk amaitu duk hire errege zuria etza-

naz, honekin, norgehiagoka eta bizia galduz, baina beti ere hik aukeratutako unean eta egoeran.

#### **IV. kapitulua**

Beti pentsatu izan dut nire izatea beste pertsona bate-narekin uztartzean zoriontasuna sentituko nuela. Baina zer demontre da zoriontasuna? Eta pentsatu beharrik gabe, zoriontasuna, beti tiraka ibili arren inoiz osoki estaltzen ez gaituen manta dela erabaki dut.

Ilea orraztu, soinekoa txukundu eta, bostak izateko minutu bat bat falta denean, bere areto partikularrerantz abiatu naiz. Atea irekitzean nire senar izango dena ikusi dut, mahai aurrean aulkian eserita, xake tablero baten gainean dagoen errege zuri etzanari so eginez. Bere aurpegi iharrean lasaitasuna gailentzen da eta lehenago inoiz loratu zitzaion irrifarre oker bat loratu zaio ezpainetan, heriotzari xake partidua irabazten utzi diola esan didanean.

Eta musu eman didanean, bere bigote ttiki beltza nire ezpainei lerratu zaienean, urteen joanak eta hauek gehitzen doazen heinean pilatutako saminak gogortutako bihotza urtu zait, begiertzera hurbildu eta malko dardarti bat bilakatuta, masailean behera, herrestan abaildu delarik.

Baina, bere buruaren barrunbean izkutatutako garunak ez dio bihotzari hitzegiten utzi eta diamante haundi bat duen eraztuna eman ondoren, ezkonduta gaudela eta joateko adieraztera eman dit harrizko bihurtu diren ezpainak nigandik berezi dituenen.

Iraganbidean zehar korrika noalarik zoriontasuna, beti tiraka ibili arren inoiz osoki estaltzen ez gaituen manta, edo beronen espejismoa madarikatu dut.

## V. kapitulua

Ohe gainean, biluzik, aurkitu zituzten Adolf Hitler eta Eva Braun. Odolak gorritutako maindire zurien artean Führer-aren aurpegi desitxuratua ageri zen, tiro hoska bat aho sapaian zuela. Eva Braunen gorputz liraina erabat desestallita zegoen eta honen azpegi atere eta izu aurpegiak, zeinak kolore berdezta zuen, bere senarra salatzen zuten, lurrean botata zegoen zianuro poteak eta txanpain kopak pozoindua izan zela adierazten zutelarik.

Hitlerrek idatzitako hilburukoan emandako aginduei jarraituz, bi gorpuak maindire garbietan bildu eta bere etxe atariko lorategian zegoen bunker antzeko zulo sakon batean ehortzi zituzten SS-ko gizonek.

Bost bidoi gasolina isuri ondoren, Goebbels-ek, Führer-aren partidu politikoan garrantzizko kargu bat zuen kideak, zeinak orain botere handiagoa eskuratzea espero zuen, poxpoloa piztu eta bunkerrera jaurti zuen.

Sugarrak haundiagotzen zihoazen heinean, haizeak hauspoak bezala bizitu bait zituen, errusiarren bonbardaketak are eta burrunbatsuagoak egin ziren, nahiz eta Adolf eta Evaren betirako loa esnatzea lortu ez.





# **Nagusia eta hirurok**

Mikel Artola Iriondo  
Elgoibarko B. Institutua  
Elgoibar



...Ez, ez da egia. Ezin da izan. Inork ezin diezaioke inori horrelakorik egin. Ametsetan nago. Lasai, pasatuko da. Laster esnatuko naiz...

Maiatzeko goiz batean hasi zen. Eguzkiak dagoeneko gogor jotzen zuen. 12etan joatekoa nintzen eta helberri baten puntualitateaz heldu nintzen. 12ak puntu-puntu ziren. Urduritasuna izkututzen saiatuz murgildu nintzen pasiloetan barrena. Detaile guztiak begiekin arakatzean seguruago igartzen nuen neure burua. Baina ez nengoen lasai, luxu usain hura eten egiten nuelakoan nengoen, eraikuntza garesti hari ez zegokion sardina kiratsa oparitzen niolako, agian... Giro ezeroso hartan sobran nengoela iruditzen zitzaidan, ito beharrean.

Emakume erakargarri batek, azkenik, zure bulegoan utzi ninduen. Zure aurrean egoteak sentsazio arraro bat eragin zidan. Lehoi izugarri batek Bilboko ikuspegi eder bat eskaintzen zizun. Larruzko besaulki batean jarri eta ordu erdiko solasaldi monotonoari ekin genion. Betiko galdera leloei erantzun egokia ematen gogoz saiatu nintzen. Solasaldi osoan zehar, zure atzekaldeko horman kokaturik zegoen urrezko erlojuak denboraren atal markatuak behin eta berriz errepikatzen zituen erritmo berdin, perfektoaz. Baiezkoa eman zenidan eta azkenik eskua estutu genion elkarri.

Zero azpitik 18 gradutan erroa arruntez egotea zer den konturatzen naiz.

Egun alaiak ziren, lanpostu egonkor batekin pozik nabilen, kamioiarekin lanean. Ondarrutik irten eta Levante aldera arraina eramatea zen nire lana. Erreflexiorako denbora ere banuen. Erabateko paisai aldeketak harriturik uzten ninduen. Iparraldeko berdetasun, mendi eta hezetasunak, bero, lautada eta lehorteaz mozorrotzen ziren bestelako abisurik gabe. Zigarroari astindu gogorak ematen zieten gasolinero zurbil, belarrimotzekin hizketaldiak izaten nituen Pegasoak eskatzen zidan bakoitzean. Gasolina usaina eta garbitasun falta besterik ez zegoen W.C.etan egiten nituen gainerantzeko eginbehar guztiak.

Baina zutaz pentsatzen nuen batipat. Hilabetearen bukaeran betiko puntualitateaz bulegora iristen nintzenean, soldata irribartsu ematen zenidan eta betiko hitzak luzatu: «Lana oso ongi betetzen duzula entzuna dut. Zorionak eta berdin jarraitu». Eskua estutzen genion elkarri bigarrenez eta eskerrak ematen nizekizun ondoren, nire lanaz ezer ere ez zenekiela nekien arren. Zure irribarre zabalean, zure begirada arretatsuan, zure atentzio jarraian erreparatzen nuen, zure irribarre behartuan, zure begirada galduan, zure atentzio faltasuan alegia. Zure izaeraren bi aldeak igartzen nizekizun, 24 orduei eguna eta gaua bereizten zaien bezala.

Oinak eta eskuak hotz-hotzean ditut. Gorritzen hasiak daudela konturatu naiz. Izozten ari dira. Ezin naiz mugitu, gorputza gogortzen ari zait. Dardarka nago.

Eta gu bion arteko erlazioaz pentsatzen nuen. Enpresako langile arrunt bat nintzen ni, baina sarritan kafetegietara gonbidatzen ninduzun, eta bestelako arrazoirik gabe zure bizitzako pasadizu ezberdinak kontatzen zenizkidan. Umetan jasandako abenturak, soldaduzkako gorabeherak nahiz

bizitzako ustekabeak. Beti ere nostalgja kutsu bat isurtzen zenuen, gauzak ziren baino politagoak egiten zenituen arren. Hasieran ez nuen gauza haundirik ulertzen. Baina begiak aurretik pasatzen zitzaizun neskaren eskote ausartean galtzen zitzaizkizunean zure mezuari zegokion forma moldatzen nion. Edo Rakel, zure idazkari erakargarriari irrikaz beteriko eskua bere atzekalde zabalean ezartzen zenionean. Edo baita Rakel berari kafea ekartzeko eskatzen zenionean; nahita, kafea bere soinekoan botatzen zenuen, geroago, beharrean zeuden esku haiekin neskaren bular haundituei zuku goxoena ateratzeko.

Esther ezagutu nahi zenuela ere esan zenidan. Esther eta biok bi urte generamatzen batera irtetzen. Ederra zen, atsegina, ile beltz luze eta gorputz mardul baten jabe. Bera-rekin interesatu zinenean gauzak okertzen hasiko zirela konturatu nintzen. Batera ibili ginen denboraldi batean. Hiruren arteko konfidantza atmosfera bat eraiki nahi zenuen. Baina ez zinen konturatzen. Ez zinen konturatzen gudarako gaztelu bat ezin dela lastoz eraiki...

Hala ere, Esther engainatzen zenuen. Zure luxu, diru eta bestelakoekin zoraturik zebilen, ni baztertzen ninduzuen heinean. Zuekin irtetzeko gogorik ez nuen, baina irtetzen nintzen. Zuen hizketaldi inozoak entzuteko irtetzen nintzen. Zuen erretzeko modu nazkagarria ikusteko irtetzen nintzen, begiak itxiz eta eskuak gurutzatuz, bakoitzak bestearen zigarroaren kea zerura nola botatzen zenuten ikusteko. Edozein tabernatan geundela komunera joateko beharra zenu-tela entzuteko irtetzen nintzen. Eta baita ere irtetzen nintzen zuek konturatu gabe zuei komuneraino jarraitzeko, eta baita ere biok komun berdinerara sartzen zinetela konturatze-ko edota belarria atean ipintzeko, tristuraz, Estherren mugimenduen soinu gorra entzuteko. Esther eta zurekin irte-

tzen nintzen, barrenean, gorrotoaren garra mantso-mantso erretzen zitzaidan bitartean.

Hankak belaunetatik behera ez ditut igartzen. Belaunetatik gora dardarak berean darraite. Gerriak eta ezker besoak ez didate erantzuten. Eskuin besoan eskuak bakarrik funtzionatzen du idaztearen ondorioz. Idazteko arazo larriak ditut eta nire letra ulerkaitza bihurtzen ari da. Sudur, masaila eta belarrien kolorea eskuaren berdina dela ohartzen naiz. Morea. Lotzen nauen sokak dagoeneko ez dit minik egiten. Idazten gelditzen naizenean eta idazten dudanean ere hortzen dantza geldiezina nekez entzuten dut, tinpano berak ere izozte prozesuan bait daude.

Zure irribarre horrek asko balio du. EEBB-etan politikari gisa aurkezten den guapoa dirudizu. Zure hizkera pausatua ere prezio altua izango du, zure mugimendu neurtuak bezalaxe. Behin eta berriro ingurune akats-gabeen pentsatzen dut, eta tolesdura gabeko frak dotorean, eta frak, bulego edo kotxearekin konbinatzen duen korbata garestian.

Ez dut, ezta ere, burutik erraz kenduko zure BMWa gidatzen daramazun itxura negargarria, edo zure ibilkera ergela, edo ezta ere Bilboko txoko onenean erosi zenuen 400.000 pezetako gabardina amerikarra jaztean hartzen duzun tankera barregarria.

Eta ongi gogoratuko zaitut, zerri halakoa! Ongi gogoratuko zaitut «papá»-ren seme nazkagarria, arranoaren habiatik harro-harro erori den hegorik gabeko kakalerdo, urontzian itotzen den itsasontzi boteretsua. Ongi gogoratuko zaitut, zoritxarreko gizon, zoriontsu zinela aditzera eman nahi zenuelako, zure gauzei zegokiena baino distira gehiago emanaz. Ongi gogoratuko zaitut, gizajo halakoa, zoriontsu irudia merke saltzen zenuelako, garestiegia zen arren zure aurpegian benetako irribarre bat marraztea.

Baina ez dut inoiz ahantziko egin zenidan guztia. Ez dut inoiz ahantziko eman zenidan tratua, botatzen zenidan gezur pila. Ez dut inoiz ahantziko zapaldu ninduzun era lotsagarria, nitaz aprobetxatu zinen denbora guztia. Esther kendu zenidan garai ahaztezina, arrain egokiena harrapatzeko amu bihurtu ninduzunekoa. Berarekin egiten zenituen «gauzak», ni bertan egon edo ez egon. Gauzak argitzeko premia zegoela esan nizunekoa, bietako batek alde egin beharko zuenekoa. Ideia argi bat eman nizula, eta eskertu nahirik edo, mehatxu latz batez erantzun zenidala. Mehatxua itzuli nizunekoa. Baina, batez ere, ez dut inoiz ahantziko mehatxua praktikan jarri zenuenekoa. Eta ez dut inoiz ahantziko, deabru madarikatua, nik beti gidatu izan dudan kamioiaren konjeladorean soka batez loturik sartu ninduzunekoa, Murciara bidaliz, Estherrekin bakarrik geratzeko, eta beti gorrotatu izan duzun langileaz libratzeko egin zenuena.

Gerritik behera gorputzik ez dudala iruditzen zait. Ikara ematen dit begiratzeak. Ezker besoaren gogortasunak harriturik uzten nau, eta eskuin besoa ere egoera berean geratuko dela badakit, idazten ia bukatu dudalako. Aurpegia antzera dabil. Ideiak hotz-hotzean, zerebroa zero azpitik dagoelako. Arnasa ozta-ozta hartzen dut. Hanka tartetik isuri zaidan likido epela nolabaiteko ilusioz onartzen dut. Txixa. Azken uneak dira. Badaki txixak ere, eta nire agonia motelari agur bero bat ematen saiatu da. Nire gorputza bezala, nire arimaren sua apal-apal itzaltzen ari da. Une batez atzean utzi dut gorrotoa, nire bizitzaren azken bihurgunean. Azken finean, Pegaso baten konjeladorean izoztuta hiltzea ez da hain heriotza tristea, nahiko eroso bidaiatzen delako beharbada.





# **Kondairak dioenez**

Igor Estankona Bilbao  
Arratia B. Institutua  
Igorre



Goroldioz eta buztinez tapatzen ziren zirrikitueta-ko ba-  
tetik sartzen zen lehen argi-izpi ahulak ferekatu zuen bere  
aurpegia eta gozo-gozo iratzarri zen. Astiro jaiki zen inarraz  
eginiko ohantzetik eta pauso nagiz metro eskaseko ate es-  
tutik irten zen kanpora. Jadanik ohizkoa zen artzain zaharra-  
rentzat irudi hura eta, begiak lainoturik bazituen ere, goiz  
hartako usaina eta giroaren hezetasuna haztatzeaz nahikoa  
zuen bere buruan egoera birsortzeko. Goiz hotza zen hura.  
Lanbroak dena tapatzen zuen eta ziurrenik elurak estalita  
egongo zen Gorbeia-ko tontorra ikustea ezinezkoa gertatzen  
zen. Ikusgaitasuna urria bazen ere, bere begiek lehen inpre-  
sioak jasotzen zituzten eta, mendi artetik irten nahi zuen  
eguzkiari esker, txabola inguruko elorrien abar bihurrien  
ziluetan ikus zezakeen eta baita lurretik gailentzen ziren hai-  
tzen gaineko antzizarrezko tapakiaren dizdira. Belarraren  
gainean ihintza pausatu zen eta orbelarteari lurruna  
zerraion. Dena tonu zuriz jantzita zegoen eta isiltasuna sa-  
kona zen. Egunaren harrak lanean ziharduen eta apurka-  
apurka gauari atzaparka, domeinua kentzen zion. Isiltasun  
monotonoa hautsiz arran hotsa entzun zen, han, urrunean,  
basabehi multzo baten presentziak iragarritz. Lehen txoriak  
hasi ziren kantuan abarrieriaren babespean. Natura nagiak  
ateratzen ari zen.

Berrero txabolara sartu zen eta zerbait gosaldu zuen bere txakurraren begirada gozoaren pean. Gauean albo batera uzteko ohitura zuen txapela jantzi eta larruzko zorroan gazta zati bat eta ogia sartu zituen lihozko manta pisutsuarekin batera. Kanpora irten zen eta artaldeari begirada bat eman ondoren aspaldian bertan bazkatu gabe zegoen landa batera joatea erabaki zuen. Txakurrari beharrezko aginduak eman ondoren artaldea trokate batetik bideratu zuen ton-torrean zen gurutzeari lepoa ematen zion norabidea hartuz.

Gaztaroan hamaika aldiz zeharkatutako trokate hura inoiz baino nekagarriagoa izan zen, eta honek bere adinaz hausnartu erazi zion. Gaztetasunak ihes egin zion. Behinola hartan pago garaiaren erroak bezain sendoa zen eta bizitasun paregabearen jabe zen. Baina orain zaharra zen, bere adina urtetan kontatzerik ez zuen behar, edozein agiritan begiratuta baino zehazkiago bait zekien bizitzako zein garaitan zegoen. Bekokian zimurrak... soilunetxo bat zuen ile zuria... pauso geldoa... entzumen ahula... bista aunatua... pultsu dardaratia...

Hainbat negu elurtsuk eta haize bortitz bezain hotzek, beste horrenbeste eguzki kiskalgarriko egun sargoriek eta ibilaldi nekagarriek zurratu zuten bere azal beltzarana eta eskuak sentikortasun guztia galdua zuten. Begiak itzali xamarrak zituen eta begi-niniaren gaztain kolore ilunak amaiera gabeko putzua ematen zuen; urteen kabuz batu ziren jakinduria, adimena, poza, pena, sakrifizioa, zalaparta, moteltasuna,... egunsentia eta gauaren ispilu.

Landa zabal batera iritsi zen eta parte bat aldiz begi zorrotzez ikuskatu ondoren, artaldeak bertan bazka zezan erabaki zuen.

Belarrak itsatsita zeukan garoaz bere frakak ez bustitze-ko lihoz eginiko ohiala zabaldu zuen pago eder baten az-

pian, zeinak komenigarria ez zen urteko lehen eguzkiari itzuri egiteko gerizpe ona ematen bait zuen.

Artzain urtetsua, begiak inora zuzendu gabe eta espresioa pittin bat ere aldatu gabe, geldi zegoen, lozorroan balego bezala.

Gero ortzean ageri ziren eta itxura txarra zekarten lainoetara zuzendu zituen begiak. Jadanik ez zen ageri sairik Lekandako tontor garaian eta zeruak berun kolore mehatxagarria hartu zuen. Ekaitza zetorren.

Euria dakarrela auresaten duen lurrin bereziak giroa bere besartean hartu orduko, artzainak lihozko ohiala larruzko poltsan batu zuen eta txakurrak aise atzeman zuen artzainaren mugimenduek zer zioten, artaldera urreratu zelarik ugazabaren aginduen menpean.

Txabolara heldu ziren eta ilunabar aldean sua piztu zuen. Dena, lokartzen balego bezala, indarra galtzen ari zen eta laino ilunek ezinezkoa egiten zuten, eginahalak egin arren, ahultzen zihoan eguzkia zeru sabaian galtzen ikustea. Suaren gar argitsuaren eztitasunean esnez lagundutako taloa jan zuen.

Beragan ohizkoa zen legez, suaren ondoan eseri zen eta nostalgian murgildu zen. Zaharkitua zegoen eta bapatean joan zitzaion gaztetasunaz etsipenez oroitzen zen. Utziko al zioten bere hankek arbasoengandiko bizibide hartan jarraitzen? Zahartzaroa ilusio gabe ikusten zuen, bere ernaietan huts bat sentitzen zuen.

Bere gogoetetan flotatzen zebilela, ulu boteretsu batek iratzarri zuen. Gertaeren haria berrartzea kostatu zitzaion eta momentu batzu pasa ziren uluak basotik zetoze la konaturatu zen arte.

—Bazetozek berriro.— esan zuen berekiko, bere sene-  
tik irtenda zegoen txakurrarengana zuzenduz.

—Itzuli dituk Mendi, itzuli dituk.

Eta hala zen. Otsoak itzuli ziren eta artaldea arrisku bizian zegoen. Mila eta bat ideiak zeharkatu zuten bere burua eta, babesgabe sentitzen zelarik, inguruko artzainei abisu ematea pentsatu zuen, eskopetekin otso batzuk akatzea lortuko bait zuten era honetan.

Arrapalada batean bere txabolatik irten eta harritza batetik lasterka irten zen eta ez zen konturatu bere txakur noblea, zahartzaroko adiskide sotila, otsoen aurka irten zela, bere ugazabarenganako maitasunak eta txakur fidel baten senak bultzaturik.

—Mendi!— oihukatu zuen. Beranduegi zen, ordea. Hila zen. Txakurraren azken ohiminak abarrarte zeharkatu zuen eta artzainaren bihotzean danbateko bortitz batek jo zuen.

Begiak erdi bustirik eta ardi txakur prestuaren irudia buruan zuela, txabola hurbilenera zuzendu zen. Korrika zihoala, hezurrek traizionatu ez zezaten otoitz egin zuen.

Erreguek balio izan zuten, baina bere patuak aldakaitza zirudien, bideskaren albo batean solte zegoen harri batek galdu arazi zion oreka. Ikaraldiaren ikaraldiaz bihotzak ere salto egin zion eta konturatu zenerako garondoan hartutako kolpe hilgarri batez zerraldo gelditu zen lurrean, hilotz.

Biharamunean, gaueko izpiritu gaiztoak uxatuz eguzkiak egun berri bat argitu zuenean, eguneroko lanetan zebilen artzain batek aurkitu zuen gorpua.

Batu ziren, bada, ilunabar aldera inguruko artzainak, otoitz eta kantuen artean azken agurra eman eta txabolaren hegalpean, ekialderantz begira, lurperatu zuten.

Toki horretan gaur egun muino bat ageri da, besterik ez. Baina jendearen oroimenean bizirik dirau artzain zaharrak. Horrela, kondairak dioenez, bere izpiritua Gorbeia-ko magaletan zehar dabil oraindik ere eta zorte txarreko bidaiariren bat inguru hartan galtzen bada, maindire zuri batez jantzita eta bere txakurra lagun duela agertzen da, galdutakoa leku segurura eramateko prest.





# **Zozketagai xelebrea**

Jon Alzate Azpiroz  
Sto. Tomas Lizeoa  
Donostia



Noren eskuetan bukatuko ote ditut nere egunak? Agian arreta handiz so egiten didan gizon lodi horrenetan edota begirada zorroztun emakume harenetan? Bai zailak jartzen dizkidatela neri gauzak! Makina bat pertsona dabil marmarka nere inguruan, eta beste hainbeste plaza hertsia eta itogarri honetan.

Begietara nigarra datorkit harategi batean erakusgai bezala bukatuko dudala pentsatzean. Nola baina, ez dakizuela nor naizen? Txerri bat naiz, eta ohore handikoa gainera. Bai, bai, hemen bertatik ere suma ditzaket zuen irribarre eta algarak nere jatorria jakitean, baina zer arraio! Gehienek txerria animalia zikin eta higuinarriztat jotzen dute; hainbesterainokoa da uste hau non gure izena zenbait irainen parekoa bilakatu den. Baina neri bost axola zurrumuru horiek! Nere istorioa kontatuko dizuet, diru usaina darien hauetako inortxok ere ez bait lidake kasurik egingo, eta bertatik igarriko duzue ni nolako txerria izan naizen. Ea ba!

Lazkao inguruko mendi baten magalean aurkitzen zen baserri zahar eta gaizkizaindu batean jaio nintzen, Petretxenean hain zuzen ere. Argiak min eman zidan begietan lehenengo aldiz so egin nionean eta nere ingurura begiratu nuen erdi tontoturik bizitza zer zen igartzeko asmotan. Nirekin batera munduratu ziren txerri ugariak han zebiltzan,

nire antzera, noraezean erdi itsuturik. Bik edo hiruk elkar jo genuenean, hantxe agertu ziren mendiak adinako bi esku eta, izugarrizko altuera batera jaso ondoren, gorputz bero eta goxo baten ondoan utzi gintuzten, laster asko lo sakon batean murgildu ginelarik. Gorputz hau, geroago jakin nuen, nere ama zen.

Zenbait aste beranduago askotxo handitua nengoen eta nire zentzumenak, ondorioz, oso argi aurkitzen ziren. Bapatean hain ezaguna nuen kurrinka hotsa entzun nuen: bazkal-ordua zen. Ikuiluko lokatzetan txirristaka eta nohizbehinka behi baten hankarekin estropozo eginaz, han abiatu nintzen ziztu bizian, nire anaiak lasterketan bultzatu edo zapaltzeaz batere arduratu gabe, helmuga nuen amaren titietara. Azkenean hor hartu nuen, garaile batek bere trofeoa hartzen duen gisan, amesturiko titia eta bertatik likido zuriska gozo hori hasi nintzen zurgatzen ase ezinik. Zertxobait beranduago iritsi zirenen bultzadak somatu nituen, lekua bilatu nahian bait zebiltzan. Eta egia esanda, gutxik lortu zuten hau, gainontzekoak hantxe geratu zirelarik guri, titia lortu genuenoi, begira. Eta hau zen gure familiak zuen gakoak, amak hamabi titi zituela eta gu, aldiz, hamalau anaia ginela, gauza benetan arraroa.

Bazkalorduetan sortzen zen iskanbila alde batera utziaz, baserriko bizitza lasai samarra zen. Hala ere, bertako biztanlearen artean bazeuden zenbait tirabira, batzuetan borroka latz bihurtzen zirenak.

Baserriko zakur zuri morroskoa, Txuri, hanka mardul, isats luze eta hortz zorroztuna, eta hau nik neuk frogatu nuen, gehien gorrotatzen genuena zen. Bere izakera anker eta harroak gozatu egiten zuen gutakoren bat egoera ezatsegin batean ikustean. Denon jabea bailitzan paseiatzen zen gure artean, burua tente eta hortzak agerian, harro-

harro, eta txakurraren esanetan premiazkoa zen bera baserrian, hura gabe gauza gutxi egingo omen genuen. Bere lana ardiak edota behiak izuturik baserritik sorora eta sorotik baserrira eramatean zetzan, eta noizbehinka gizon arrotzen bat edo eskalaren bat agertzen bazen, hortzak erakustea. A zer lana zuen ba horrek! Eta hau dena nagusiak ematen zion tratutik zetorren, laztanek eta hitz goxoek bere burua zeharo aztoratu bait zuten.

Nik ere izan nuen zenbait istilu tipo nardagarri honekin. Egun batean nire anaia bat eta ni, ez dakit zein, hainbeste bait nituen non ez ditudan beraien izenak gogoratzen, nagusiaren baratzean sartu ginen zenbait jaki gozo lapurtzeko asmotan. Ekintza probetxugarri honetan aurkitzen ginelarik, hara non azaldu zen Txuri begiak sutan zituela, ez bait zuen atsegin jendea berak berea bezala jotzen zuen baratzan sartzea. Nire anaia bai, konturatu zen etorri berriaz eta ihes egin zuen, baina ni ez, eta neurean jarraitu nuen, lurra irauliaz. Txakurraren presentziaz konturatzerako egina zuen hark jauzi nigana eta laster asko somatu nituen bere hortz zorrotzak nire izterretan barneratzen, min garratz izugarri bat sortuaz. Egin nuen oihua, kurrinka noski, hain izan zen handia non baserri guztian zehar zabaldu zen, oihartzun baten antzera. Amen batean agertu zen nagusia, izugarrizko begirada haserre eta bortitzarekin, makila bat eskuan zuela. Txurik, bere nagusia horrela ikustean, atzerantz egin zuen kokildurik, baina nagusiak, nire gozamenerako, errukirik gabe astindu zuen makilaz eta han abiatu zen zakurra mindurik, isatsa hanka tartean zuela eta baserrian sudurpuntan jartzen zitzaiona egin ez zezakeela ikasiaz.

Hala ere, ni ez nintzen oso ondo paraturik irten kome-ria hartatik, izugarrizko orbaina utzi zidan horzkada horretaz aparte, nagusiak, Txurirekin bukatu ondoren, niri heldu

bait zidan eta makilkadak maisu nituelarik ikasi arazi zidan bere baratza ez zela niretzako egina. Bai azkar ikasi ere!

Behiek talde ugari bat osatzen zuten, eta baita hertsia ere. Baserriko diru iturri nagusienetako bat zirela eta «probetxuzko» animaliatzat jotzen zituzten beraien buruak eta, hau zela eta, beste bizilagunak arbuiatu eta mesprezatu egiten zituzten, soberan zeudela pentsatuaz. Hala eta guztiz ere, bihotz onekoak ziren eta ez ziren inongo arazotan sartzen, baina beti izango ziren harroak.

Zaldi gutxi batzu bazeuden eta hauek asko miresten genituen, bere jokaera arras zentzudun eta lagunkoia bait zen beti eta gainera, beraien indarra zela eta, Txurik errespetoa zien animalia hauei.

Besteei buruz ezer gutxi esan dezaket, ardiak apenas ikusten bait genituen, beti kanpoan zebiltzalako eta oiloak, berriz, beldurtu eta ihes egiten bait zuten gutakoren bat ikustean, oso zaila egiten zitzaigularik hauekin harremanetan jartzea.

Nere ustez baserriaren izen ona gordetzen zuten bakarrak gu ginen, txerriak. Zuek bezala, beste kideek ere ez zituzten begi onez ikusten gure eguneroko iharduerak, batez ere lokatzetan egiten genuena, eta zikintzat jotzen zituzten. Nolatan jo dezake jendeak zikintzat lokatzetan zilipurdikatzea? Nik neuk ere ez dakit, baina seguru aski esperientzia hau probatu ez duelako. Guretzako, eta zuentzako ere egingo bazenute, hau da jolasik ederrena eta bertan nabaritzen dena amets gozoenaren antzekoa da. Hala ere, bagenituen gure eginkizun neketsuak, hala nola ezkurak bilatzea, nagusia pentsuen aldekoa ez zenez, hau bait zen gure elikagai nagusia esnea edateari utzi genionetik.

Baserriko bizitza lasai honetan ez zen bestelako arazorik sortzen eta eguneroko bizitzan irrintzi, kurrinka, bee,

zaunka, marru eta kakarak nagusitzen ziren. Baina bazegoen lasaitasun hau hausten zuen gertaera susmagarri bat: nohiz-behinka txerriren bat, batez ere lodienak, desagertu egiten zen sekula santan ez azaltzeko; baina ezin nuen hau frogatu, txerriak oso ugariak bait ginen eta nik ez nekien, garai haietan, noski, lau baino gehiago kontatzen, norbaiten falta sumatzeko beharrezkoa. Baina nere susmo hauek laster asko egiaztatu nituen.

Behin, larrean lizar tarteko belarra jaten ari nintzelarik, kurrinka hots zorrotz eta mingarri batzuk entzun nituen. Bi txerriren arteko liskarra izango zela pentsatu nuen eta, nere eginkizunean jarraitzekotan nengoelarik, belarren artean likido gorriska bat ikusi nuen suge baten antzera hedatzen. Jakinminak iturriaren sorburura eramanez ninduen: etxe parera. Bertan nagusia eta bere semea lastotan zerbait erretzen ikusi nituen eta bertan pasa nuen arreta handiz begiratzen denbora, arik eta sua itzali eta bertatik gauza bat atera zuten arte, eta honi zenbait gauza atera ondoren, etxeko paretan zintzilikatu zuten. Nagusia eta bere semeak etxeratu arte itxaron behar izan nuen paretara hurbiltzeko, eta bertan ikusitakoak arnasa kendu zidan: tripa irekia eta garbia zuen azala erreriko txerri bat aurkitzen zen bertan!

Handik aurrera izaturik, beldurturik eta kontu handiarekin ibili nintzen, paretan zintzilikatuko zuten hurrengoan ni izan nintekeela pentsatuaz eta, honela gerta ez zedin, gero eta gutxiago hasi nintzen jaten, itxura argala eta gaisoa lor nezan nagusiaren txerri lodi nahitik ezkutatzeko. Gaueetan ere lo gutxi egiten nuen, alde batetik goseak galerazten zidalako eta, bestetik, nagusia nere bila etortzen zenerako ihes egiteko prest egon nahi nuelako. Benetan itxura negargarria nuen egun haietan, mamu bat nirudien, eta ez dut uste egoera honetan askoz gehiago iraungo nukeenik. Hala ere, gaueetan lo ez egite horrek bizia salbatu zidan.

Gau hartan ikuiluan ezinegonik nenbilen eta kalera ir-  
ten nintzen haize freskoa hartzera eta aldi berean ilargia  
mirestera eta baserritik piska bat urrutiratu egin nintzen.  
Ilargiak nire arreta guztia bereganatu zuenean, argi eta be-  
rotasun izugarriak sumatu nituen nire atzean, hau da, ba-  
serri aldean, eta bertara begiratu nuen. Begi aurreko ikus-  
kizuna ezin nuen sinestu: baserria sutan aurkitzen zen, ni  
nengoen lekuraino iristen zirelarik behi, oilo, zaldi eta  
abarren ohiu izutuak, eta baita kiskaliriko habeak lurra jo-  
tzean egiten duen soinua ere. Suari nion, eta diodan, bil-  
durratetik hara joatea burugabekeria iruditu zitzaidan eta  
goiz partean, sua itzalirik bazegoen behintzat, hurbiltzea  
erabaki nuen. Egunsentian sua itzalirik zegoen, baina han  
ez nuen inor aurkitu: habe eroriak, harri koskor sakabana-  
tuak eta errautsak, errautsak eta errautsak soilik. Benetan  
penaturik gelditu nintzen; non zeuden ba nire lagunak?  
Baina nagusia, bizirik bazegoen behintzak, edozein momen-  
tuan ager zitekeela pentsatzean, izutu eta inguru haietatik  
ziztu bizian egin nuen alde, basoan barneratuaz.

Zenbait aste neramatzan nora ezean, nora jo ez nekie-  
larik. Hauetako batean, lokuluska bat botatzen saiatzen ari  
nintzelarik, basurde bat agertu zen sasitartetik eta, berare-  
kin solasean egin ondoren, Sansier izena zuela eman zidan  
aditzera eta oso lagun minak egin ginen. Berarekin igaro  
nuen denboraldian zoriontsu sentitu nintzen baina, ordurar-  
te izan nituen gauza guztien antzera, zoriontasun honek  
ihes egin zidan eskuetatik.

Negu gogorra zen hura eta elur ugari zegoen lurrean  
pilaturik, zeru goitik mara-mara beste hainbeste zetorrela-  
rik. Egun haietan zenbait ezkur mixerable aurkitzeko izu-  
garrizko elur mordoxka irauli beharra zegoen, eta hau dela  
eta Sansier niregandik piska bat urrutiratu zen ezkur ugari-  
ko leku bat bilatzeko asmotan. Handik bizpairu minututara



zenbait ulu entzun nuen Sansier urrutiratu zen norabidetik eta bertan burruka gogor bat zegoela zirudien, bertako partaide bat nire laguna zelarik dudarik gabe. Izaturik, otsoetatik izkutatzeko gordeleku apropos baten bila hasi nintzen basurde kurrinka zorrotz eta mingarri bat haranean zehar zabaldu zenean, hasieran indartsu, gero, ordea, isiltzen joana: hura izan zen Sansierren azkena.

Baina nire ezbeharrak ez ziren han bukatu, ez. Haritz tartean zenbait itzal ikusi nuen isiltasun osoz limurtuaz; nire laguna akabatu zuten otsoak ziren dudarik gabe. Ez nuen asko pentsatu behar izan handik ziztu bizian ihes egin beharra nuela jakiteko, eta ni abiatu orduko otsoak argitara agertu ziren jauzi batez beraien harrapakina, ni zoritxarrez, jarraitzeko. Beraien arnasots higuigarria nigandik hurbil somatzen nuen, baita nire azkena ere; hau dela eta, momentu batez nire burua defendatzea erabaki nuen; laster asko baztertu nuen erabakia. Honela, bada, elurretan arnasestuka eta jota utzi nuen nere burua erortzen. Begiak itxirik nituela herioaren zain nengoen, baina hau ez zetorren. Muzin egin ote zieten ba otsoek nire izter meharrei?

Astiro-astiro begiak ireki ondoren, gizon gihartsu bat ikusi nuen nire ondoan aizkora eskuetan zuela eta bere inguruan, berriz, odolusturiko zenbait otso zegoen. Eskerrak emateko astirik eman gabe gizonak, egurgilea lanbidez, bere etxera eramanez ninduen. Handik egun gutxitara, gauez, gizon arlote batek nire hesiaren langa isil-isilik ireki eta kontu handiz zaldirik gabe ibiltzen zen gurdi handi zaratatsu batetara eramanez ninduen.

Hortik aurrera gertatutakoaz ezer gutxi esan dezaket. Hiri honetara, Donostia dela uste dut, ekarri naute Santo Tomasetan zotz egiteko. Orain hemen naukazue nire jabe berria nor izango ote den jakin nahian. Nire istoriotik zer-

bait probetxugarria aterako duzuela espero dut, nik ezingo bait dizuet ezer gehiago esan, antza denez atera bait dute zenbaki sariduna, itxura oneko gizon hori irrifartsu bait dator niganantz. Ea, bada, zorte piska batekin, baserriren batera eramaten nauen txerriki bihurtu ordez!

# **Ibai baten esamesak**

Aitziber Salinas Elozegi  
Barandiaran Lizeoa  
Donostia



Abiatzen naizeneko lekuan oso ederra naiz, baina txikia. Neure abialekua Goizueta da. Goizuetako guztiak eroturik daudela diote baina, nik behintzat, tratu ona jasotzen dut beraien eskutik, nahiz eta betiko jende zikina ere egon, baina hori ez da ezer beherago gertatzen zaidanarekin parekatuz gero.

Urumea izena nork jarri zidan ez dakit, baina oso atsegin dut, nahiz eta hasiera batean arraro samar suertatu. Garai haietan ez nuen ia indarririk eta oso txikia nintzen, baina hori bai, oso garbiak ziren neure urak. Konturatu baino lehenago, kartekez goraino bete ninduten, hauetan «Urumea ibaia, rio Urumea» zioelarik. Orduan jakin izan nuen, denek hala deitzen zidatela, eta atsegin dut izena, zeren zein izen bestela?

Haziz joan nintzen heinean, Goizuetako paraje eder batzuk ezagutu nituen eta Aranora sartu nintzen. Baso asko dago hemen, zuhaitz artean perretxikoak eta perretxikoen atzetik beti bezala perretxiko zaleak. Perretxiko zaleen artean ere denetatik dago, badago jendea neure lagun zuhaitz, belar, loreak eta ni errespetatzen gaituena, baina badaude beste pertsona batzuk, gaur egun mordoa, batere errespetatzen ez gaituena, eta perretxikoak hartzeaz aparte, loreak puskatu, zuhaitzei adarrak kendu eta zaborrak botatzen diz-

kidana eta, hauei esker, beste batzuen laguntzaz noski, honela bukatu dut.

Ez dut batere gogoko aurrerago datorren zati hau; ez zait axola jendea neure uretan bainatzea eta, gainera, atsegin dut, baina ez da hori gertatzen den bakarra; badago zati bat, non uretan sartzeko ia lekurik ere ez dagoen, eta hona sartzeko ere, ordaindu egin behar den. Leku hori zeharo esplotatua dago, eta ez zait batere atsegina suertatzen hemendik igarotzea, baina beno, bizitza honetan dena ez dela ondo pasatzea ere badakit eta, tira, aurrerantz jarraitzen dut. Ehun bat metro aurrerago, neure inguruan, lautada eder bat dago eta gazte mordoxka, kanpin dendak hartu eta ondo pasatzera etorri ohi dira. Hauek oso jatorrak izaten dira eta aurkitu duten bezala uzten dute ingurunea; baina hori bai, gauean, sekulakoak muntatzen dituzte. Gogoratzen naiz behin nola Andoaingo gazte batzu lau egunetarako etorri ziren, gauean sua piztu, musika jarri eta gau osoa dantzatzen pasa zuten. Oraindik gogoratzen ditut abesti batzuen hitzak ere; gainera, Hernanitik igarotzean, dantzaleku baterako bidean doazen gazteek abestu ohi dituzte oraindik abesti horiek eta gazte haiek burura etortzen zaizkit. Gazte mordoxkaren lagun egin naiz azken urteotan eta oso jator portatu dira denak nirekin ere.

Neure aurreranzko bidaia jarraituz, Urnietako mugak ukitzen ditut, baina herria ikusi ere egin gabe. Hala ere, Anderrek kontatu didanez, oso polita omen da. Ander, Hernaniko lagun bat da; oso prestua da eta ezin ikus ditzakedan gauzei buruz hitzegiten dit. Ander eta bere lagunak Arano ingurura etorri ohi dira neure uretan bainatzera, hau leku onenatariko bat bait da eta, ondo pasatzen duten bitartean, herrian gertatzen zaizkien tirabirak kontatzen dizkidate. Noizean behin Hernanin istiluak egon ohi dira eta dene-tatik gertatzen omen da: behin, Acenor itxiko zutelakoan,

langile batzuk manifestapen bat egin zuten honen aurka eta, orduan, manifestariak esta Ertzainak elkar joka hasi omen ziren. Harrigarria benetan, espezie berekoak izan eta elkar joka ibili beharra! Baina horrelakoa omen da bizia beste lekuetan ere, zeren beste ibai eta errekatxoekin solasean ibili ondoren antzeko gauzak jakin bait ditut. Adibidez, Eufrates ibaiak, Iraq aldetik datorrenak, orain urte bete edo Iraq-ekoek egun osoa Kuwaitekoak nola hil pentsatzen eta hauek hiltzen saiatzen pasatzen zutela esan zidan eta honi gerratea deitzen diote, gainera; honi gerrate santua delako izena jarri zioten, jainko baten omenez egin zutelako edo. Benetan ulergaitzak gizonak, eskerrak Ander eta bere lagunak bezalako jendea badagoen, bestela ez dakit zer litzatekeen munduaz momentu honetan.

Arano eta Hernani bitartean, zenbait zentral hidroelektrikotatik igarotzen naiz. Hasieran, beldur apur bat ematen zidan, zeren hodi baten bitartez altuera jakin batetik botatzen bait naute, ahal dudan abiadura eta indar guztia har dezadan; baina orain dibertigarria iruditzen zait, hodiaren bukaeran, neure indar guztiekin bultzatu eta, makina arraro batzuetatik igaro ondoren, berriro jaregiten naute lehen bezalaxe, baina indar makalagoaz. Nik guzti hau pasa ondoren, gizonak argindarra lortzen dute esta horrek poza ematen dit, neuri esker lortutako gauza bait da.

Hernanin gertatzen dena zeharo desatsegina da, zeren lantegi guztietako zikinkeria guztiak niri botatzen bait dizkirate, eta nik itsasoraino garraiatu behar ditut. Oso triste jartzen naiz neure gazte garaia gogoratu, ezen aintzina, Hernanitik igarotzean, amuarrainez beterik bait nengoen eta oso ondo moldatzen nintzen hauekin, beraien artean bizitzen zituzten tiki-mikiak jarraituz. Baina orain Arano aldera ere ez didate irauten.

Hernani igaro ondoren, Donostiarantz noa. Sona handiko hiriburua da hau, bere hondartza ederrengatik batez ere. Donostiara iritsi baino lehenago, ordea, Donostia kanpokaldean dauden auzategi batzuetatik igarotzen naiz. Lehenengoa Martutene da; ez du oso auzategi politaren itxurarik, baina tira. Martutene, trenbidearen ondotik zeharkatzen dut, benetan asmakuntza harrigarria trenarena. Aurrerantz eginez, Loiolara heltzen nai, non gizonek, «soldaduska» deitzen diotena egiteko leku bat bait dago, koartela alegia. Hemezortzi-hemeretzi urteko gazteak, mutilak bakarrik, gerrate posible baterako prestatzera etortzen dira, baina ez dakit baliozko zer ikasiko duten mutiko gizarajoei han urte betean eta gogorik gabe. Koartelaren inguruan eta aurrerago, gazte piloak arraunean ibili ohi da; oso ondo pasatzen dute, bai, nahiz eta noizean behin uretara erori.

Donostiara iristen ari naizela berehala sumatzen dut: trenbiderantz doan zubitik jendea alde batetik bestera presaka ibiltzen da eta baita hurrengo bi zubietan ere.

Izugarri polita da zati hau, itsasoratzen naizen unea alegia, arroken aurka jo eta zipristin zuriak ateratzen ditudan unea. Erromantiko piloak etortzen da gertaera zoragarri hau ikustera, baina ni nahiko goibel sentitzen naiz, hemen bukatzen bait da ibai bezala nire bizitza. Hemendik aurrera, itsas korrante bihurtzen naiz. Nahiz eta beste ibai izandako korrante batzuekin geure bizitzaren gora-beherak elkarri kontatzen aritu, ez da ibai izatea bezain alai eta bizia. Jakina, orain, korrante izatea zer den dakidanean, ibai izatea alaia iruditzen zait, baina ibaiok hobeto geundeke arrain gehiago eta zikinkeria gutxiagorekin. Zeren azkenerako, ibai ala zabor garraiatzaile gara? Pentsatu eta lagundu, mesedez, azkenean bestela geure biziak, estolda baten antzera bukatuko bait du, zikinkeriaz betea eta erdi hilik.



## **POESIA. A maila**

B.B.B.ko 3. kurtsoa, U.B.I.,  
L.H.ko 2. gradua eta  
I.E.E.ko 2. zikloa



# **Azken fotogramak**

Josu Goikoetxea Gezuraga  
Gernika-Lumoko B. Institutua  
Gernika



Behelaino artifiziala  
kartoizko karriketan.  
Hiria lotan da  
eta heroiak zera diotso  
neska bular politari:  
    «Deboirmetequieroadiós»  
Baina zuk ez,  
zu Englanden egon zinen  
eta haren ezpain lodietan  
besterik irakur dezakezu.  
    «ImustgoIloveyoubye»  
dio mutu ezpain lodiak.  
    (noski, inoiz ez:  
    «Joaneinbeharnaunmaitehautagur»)

Badoa heroia, badoa-doa,  
hiri margoztuak irensten du.  
Ezker eskuaz kolpe bat;  
egokitu du txapela  
eta neska bular polita,  
bere bizitza krudela  
gorrotatzeko indarge,  
negarrez ari da.  
Gidoiak hala dioelako, bestalde.

Theendtheendtheend  
eta akabo, tout fini,  
musika single bat,  
inork irakurriko ez dituen  
letra ñaño, esangura bakoak.  
Bukatu da pipiten sinfonia:  
klisklasklisklastop!  
Buruak gora, argiak piztu,  
sala guztira hedatzen den  
argi karmina.

Amorante birjinek  
garaiz utzi dute  
beren sexu jolasa.  
Neska sentimentalak  
garaiz xukatu ditu  
bere anpulu lodiak,  
ez ondo, okotzean du bat,  
dindilizka, zorabioz, osinari so.  
Andre-gizonak ere jaiki dira  
«Iragan denborengatik, badakik»  
beldurturik zine zaharkituan.  
Baina zenbat urte...?

Eta zu, berriz, hor zaude  
ilunilunilun, kizkurturik besaulkian,  
sala husten den arte.

Tipitapatipitapa... norbait dator.  
Begi txiki bik  
begiratzten zaituzte  
eta, ohituraz,  
linterna batez argitzen zaitu  
gizon ttikiak,  
nahiz eta salako argiak  
piztuta, piztuta, piztuta egon!  
«Pelikula amaitu da, mutil»  
(mutil, motel, makal)  
Amaitu da, beraz.  
Finito. Kaput.  
«Bihar pelikula, jauna?»  
mihi guztiz dorpez diotsazu,  
mundua mihi puntan doakizu.  
«Ez, mutil. Ez bihar, ez etzi. Amaitu da guztia».

Bazoazte biok,  
tipitapatipitapa ateraino.  
Ate ondoan, azken suspentsea:  
gizon ttikiak  
bere batutaren azken mugimenduaz  
argia itzali du;  
Toccata eta Fuga «klik» batean!!

Bezturiko karteletik  
Bogarten azken begirada, nola ez.  
«Ixil hadi behingoan, Sam! Etzak berriro jo!!»

Glamour, mon amour!  
Agur, agur!

Eskuaz diosala gizon ttikiak,  
ilunbea nonnahi,  
azkenik, euria,  
tapatapatap, monotonia.



# **Denboraren hautsontzian**

Harkaitz Cano Jauregi  
Sto. Tomas Lizeoa  
Donostia



minuskulaz idazten dut  
neu ere nolabait minuskulo naizelako  
neu ere hilkor naizelako  
eta nire poesia ez delako sekula  
Pariseko teatroetan errezitatuko.

### **maitasunari**

ez dakit zer den maitasuna  
baina bai zer den maitatzea,  
ez dakit zer den asuna  
baina bai zer den eskuak izotzez erretzea;  
ez dakit zer den laguna  
baina bai zer den euripean guardasolik gabe  
bakarrik paseatzea...  
apenas dakit ezer,  
apenas sinesten dut ezertan,  
baina ezertan sinesten ez badut ere,  
oraindik sinesten dut  
zuga

maitasuna zer den ez dakit  
baina bai zer den maitatzea,  
eta maitatzea zer den badakidalako

eskatzen dizut, zure esku dardartiez  
bil ditzazun nireak,  
utz dezazun kea gorantz ihesi xor  
eta ahantz dezazun zer den mundua  
eta ahantz dezazun zer den bizitza,  
eskatzen dizut, promesa itsu eta abre bat  
eta berant izan aurretik  
ezpainetan musu bat;  
eskatzen dizut mira ditzazun  
neuk bakarrik mira ditzakedan kristalezko  
irlak,  
mira dezazun zabor poltsek osatutako  
paisaia urbanoaren gainetik,  
autobusek zapaldutako uso odolduen gainetik  
altxa ditzazun begiak,  
eskatzen dizut  
ikusmira ditzazun semaforo herdoilduen gainetik elaiak,  
ikusmira ditzazun zerua zauritzen duten  
tximinien gainetik,  
sekula beteko ez diren amets birjinak.

Hori egin ondoren,  
isildu instant batez

eta, maite ez nauzula deliberatzen baduzu,  
jarraitu zure bidetik.

«Maite zaitut»  
idatzi du haizeak  
ortografia barrokoz itsasoan;  
eta nork,  
nork egin diezaioke kontra haizeari?

...nik ez dakit zer den maitasuna  
baina bai zer den maitatzea.

## denborari

tik  
erori da beste segundu bat ere  
itzulezinaren amildegira (blaut)  
tak  
erantzi ditut zapatak  
izeki dut winston berri bat  
tik  
erori da beste bat irristatuz erretenetan  
ke gardenaren errautsetara (plff)  
tak  
Zertarako bizi?  
«Egun batean hiltzeko»  
(erantzun lakonikoa euriak)  
tik  
zazpi eroren orruak  
eta sendatu gure erruak...  
tak  
euriaren talka dantzut,  
harri txintzarren sinfonia erritmikoa  
tik  
afaltzeko ere, marrubizko mermelada...  
tak  
zein gozoki dagoen lady Tristezi  
tik  
begira Etiopiako bigarren zirkulutik  
tak  
eguraldiaren pronostikoa:  
euria egingo du portal bikoitietan,  
kazkabarra parte zaharrear  
elurra Egipton  
eta hogeiteneko txanponak New Yorken  
tik  
hamaikagarren segunduan  
bota dut burua leihotik.

erori da beste gizon bat ere  
itzulezinaren amildegira. (blaust)  
tik

hamabigarren segunduan  
geratu da orratza.

baina, nahiz isilik,  
aurrera darrai denborak,  
BETI.

### **bizitzari**

Denboraren itsasoak hareari unez-uneko batailan irabazitako,  
ohostutako, auziak Himalayapean gorderik daude;  
eta soilik bertako elurrak urtzean urtuko da, negar isuriak  
falsukeriaren jelazko tronua ere. [sortuz,

Han daude, —itsaso urrun hartan—  
tamarindo okertuak beren baitan bezala  
bata bestearen gainean errepikatzen diren eskenak ere.  
Rutinak bere egin dituen eskena kolorgeak.

Zergatik hoa hain azkar izakera abisaleko amildegietara,  
ezertarako lain ez diren sakan more horietara,  
bizitzarekin pultsua aspaldi galdu zuten haiek bezala;  
itsasoak bizitzaren hondartza iharrari lapurtutako,  
irabazitako, muga busti beltzaranetarantz.

Zergatik ez zara isiltzen, soberako hitzak xuxurlatu ordez?  
Hobe zenuke telefono posteez inguraturiko baratzetako  
txorimalo bakartiei konpainia egitea.

Adibidez, «Zer, eguraldi ona, ez?»  
edo eta «insignis alu hau jarri zutenetik...»  
edo apika «leiho estuegia da poesia»

Non zegok hire bohemiazko bihotza?  
(mila zatitan puskatu ote da?)  
Zorionaren untzira igo diren polizoiak ere,  
aspaldiko desertoreak bailiran,  
Winston pakete zanpatuak bezala,  
haizeak barreiatuko ditu  
periodiko puskatu eta zarama poltsen parabisura.

Rutinaren keak ainguraturiko hitzak ere,  
aideratzeke lasta handiegia daramaten globoak baino ez dira,  
ez dute nora heldurik;  
eta eromenaren itzalean sortutako loreek  
eutsiko diote burrukari;  
bizitzarekin pultsua aspaldi,  
aspaldi galdu zuten haiek bezala...





## **Gaua eta zu**

Unai Iturriaga Zugaza-Artaza  
F. Juan de Zumarraga B. Institutua  
Durango



Ile beltzaran, begi orlegi,  
azal umel eta fina,  
euri lanbrotan farola batek  
argitzen dizu ixkina,  
sos batzuren truk asetzen duzu  
gizon frustratuen grina.  
Zer zinatekeen jarri pentsatzen  
bazeneza imajina  
bustin artean jaio beharrean  
zetatan jaio bazina.

«Merezi al du?» oihuka esan  
duzu hainbeste alditan,  
kale kantoian gorpu biluzik  
busten zintuen euritan.  
Beste gizon bat, beste mozkor bat,  
zertan dator?... haragitan...  
ta ametsetan bihurtzen zara  
gauetz zure ohizko zitan  
tronu gabeko erregeen dama  
ilargiaren argitan.

Berriz kalean, gaua ixilik,  
alkohol hatsa inguruak,  
iheslariak ditu maitale  
portaletako zoruak  
«...Aizan neskatxa! Lau eta bostehun  
bazeuzkanat seguruak»  
Izengabeei zorrak ordaintzen  
eman dituzun orduak!  
izarrek soilik dakite zenbat  
zor dizun zuri munduak.

Kuartu hotz baten, nahi eta ezin  
ordu laurdeneko zama,  
«Aizak hi mutil, beste inortxok  
ez bezala dagik lana»,  
haren begiek daukaten poza  
ezin ipuinetan asma,  
beti bezala berriro ondo  
irten zaizu zure plana:  
horra beste bat koroa gabe  
errege atera dana!

Euri ttanttaken irristatzaile  
espaloi hotzen hegiak,  
noraezean kantoï orotan  
dauden figura geldiak,  
ta bapatean «Hiru heuretzat  
ta emaizkidan erdiak!»  
agintearen aurrean ixil,  
itzal itzazu begiak,  
gezurra jabe den mundu hontan  
balio ez bait du egiak.

Euri, malkoak, zure masailan  
beherantz zihoazela  
aurkitu zaitut harri bitxi bat  
aurkitu banu bezela,  
ta pentsatu dut «Ez esan gero  
zoragarria ez dela!»  
zu nahi zintudan gau hotz honetan  
ene aterbe epela,  
errukitu naiz konturatzean  
hirugarrena nintzela.

Soft Blues batekin gaua zulatzen  
Miles Davis-zaharran trunpeta,  
ilunak soilik entzun lezaken  
arnas hotsen berriketa...  
ene taupaden antzematera  
etzan zara neka-neka,  
barka eske lez laztandu nauzu  
«egizu lo egin neska»  
norbaitek lorik merezi badu  
zeuk merezi duzu eta...

...Lehen izpiak iratzarri du  
kartoi artetik mozkorra,  
maindire artean lo utzi zaitut,  
mahai gainean nere zorra  
atea hersteaz bat desegin zait  
amodio iheskorra...  
Imajinatzen ere zail bait da  
gaua berez den altxorra,  
batzuentzat zein lasaia eta  
besteentzat zein gogorra.

**In memoriam**

*Gabriel Celayaren Heriotzean.*

M. Jesus Garcia Berasategi  
La Salle Ikastetxea  
Donostia





## I. OROITZAPENAK

Urtaroen joan etorria,  
itsasoa bizkarrean daraman  
izokinaren nekezia bezala,  
sahatsaren azpiko atsedean putzu  
egin zait.

Igelaren jauzi gautiarra  
aseduraz jantzirik dager;  
orein zaharrarena, ordea,  
aintzinako arintasunaren  
egarriz.

Bizitzaren liturgia  
monotoniaz horbanduta dakusat,  
amodioaren eguneko tunika  
zuria grisazka dagoeneko malenkonia  
euriz.

Ihizko txalupa zait  
egun joana  
eta beldurrez nago nora  
eraman nazakeen geroak uhainez  
uhain.

Urtaroen joan etorria,  
itsasoa bizkarrean daraman  
izokinaren nekezia bezala,  
sahatsaren azpiko atsedean putzu  
egin zait.

## II. HILZORIA

Banoa.

Esperientzia definigaitza da,  
nerabazaroko lehen maitasuna bezala.

Badakit

udaberriko bitxilorearen bapatekotasunez  
nahiz krabelinaren erditze neke luzez  
harritu ere  
harritzen zaitudala:

aintzinako itsas sirenaren kantua naiz,  
sabel erraldoira deitzen zaituena;

lilura eta antsia,

ezezagunarengatik lilura  
eta horrexegatik ere antsia,  
bata nahiz bestea  
auskaloren aberria.

Ene esperantzek bildu dituzte  
ordu beldurgarriari aurre egiteko  
euren kredoak.

Berandu samar ez ote, ordea,  
itsasgora utzi eta uhainak  
kokatzen nauenean  
ertzean.

Eta denek, lilura eta antsiek,  
sirena eta kredoek dioskate  
arratsalde hotzaren ordua dela  
eta eguzkiarekin batera  
lotu behar garela  
mendebalean.

### III. HERIOTZA

Hila naizenean ez dakit,  
arragoaren gorria ala elurraren zuria,  
zer isladatuko dudan.

Hila naizenean ez dakit,  
joanaldiaren oroitzapena ala ahanztura,  
zer irrikatuko dudan.

Hila naizenean ez dakit,  
usteltzearen eulia ala ihintzaren egunsentia,  
zer usainduko dudan.

Hila naizenean ez dakit,  
primma ballerinaren jauzia ala errenaren makulua,  
zer miretsiko dudan.

Hila naizenean ez dakit,  
ilunabarraren hobiraketaren kandela ala argi printzarena,  
zer piztuko dudan.

#### IV. AGURRA

Udaberriko bedartza bustian  
oparitu genizkion lagunaren hautsak euriari:  
zeru goibelaren malkoak  
ez ziren urri.

Haizeak hartu eta itsasora eraman zituen  
kresalaz zitezen nahasi:  
itsasoaren malkoak  
ez ziren urri.

Lurrak hartu zituen besteak  
eta urraduraren ahotik irentsi:  
lorediaren malkoak  
ez ziren urri.

Baina lagunen bihotzeko hutsaldia  
zerk bete dezakeen nahi nuke jakin:  
horren sendaketarako behintzat  
balego malkorik...

# **Maitasun poesia**

Ainhoa Negeruela Izagirre  
Lanbide Heziketa Institutua  
Oñati



Nere arnas  
tristeia,  
hildako poeten  
amodio hitzen  
maitea  
noraeezan dabil,  
bakarrik,  
haize hotzarekin,  
udazkeneko hostoekin  
adiskideturik.

Neguko gau  
hotzetan  
bere irudiak ihes eginda,  
bila,  
baso ilunetan  
guztiei galdezka,  
erantzunik jaso gabe  
paukuak jarraituz  
bidean, ilusioak galduz  
bihotz puskatu baten jabe.

Oroitzapenetan  
giltzapeturik  
lehena, sutan erretzean,  
eta geroa  
izarretan gorderik.  
Denboraren orratzetan murgilduz  
oraina aurkitu nahi,  
bide ilunak agurtuz,  
atzoko penak ahaztuz,  
loreen kerizpetan maitatzeko gai.

Udazkeneko  
ametsetan  
poesia, hitz gozo ugari  
entzunak  
bere ezpainetan,  
baina esnatzean  
ni, ilunpetan,  
desio eta esperantzen preso  
denboran galduriko  
begiradez landutako katean.



Ilargira  
urreratuz,  
bere argitasunean  
negar zotinka  
jarraituz  
entzun dut, aspaldian  
aintzinako jainkoek zigortua  
izan nintzela zeruan.  
Orain, betirako bakardadean itoa,  
tristuren iturri agortua.

Masailak  
bustiz  
negar malkoak  
amodio  
gaziz  
nahigabeen beherantz  
bizi izanik esklabu;  
orain hilez,  
samin pixka bat eraman nahian  
besteen errukiaren lapur.  
Baina malkoak lehortuz...

Olatu zuriek  
    itsas ertzean  
bere pausoak  
bapatean  
    desagertaraztean,  
harri baten azpian gordeko ditut  
nire maitasun sentimenduak  
eta zain egongo naiz  
sekretua noiz aurkituko  
jakintsu zaharrenak.

Orduan,  
    belaunikaturik,  
atzoko profetengana  
isilka  
    hurbildurik,  
mesedez! laguntza eskatuz,  
ez dut bihotzean  
zorionik izango...  
    Kostalde berean  
    beste harri baten azpian  
    bere maitasuna aurkitu arte.

## **POESIA. B maila**

B.B.B.ko 1. eta 2. kurtsoa,  
L.H.ko 1. gradua eta  
I.E.E.ko 1. zikloa



# **Amodioaren garapena**

Larraitz Garmendia Munduate  
Oianguren B. Institutua  
Ordizia



Zergatik jazten nauzu  
amodioaren osteran?

Utz nazazu larru bizirik,  
kausi nazazu biluzik,

amodioak berak  
estaliko bait nau!

Bai, bai

amodioan ez da  
haserrerik umotzen;

baina nola berotu  
jantzirik  
amodioaren aurrean?  
Zigorradetz jantziko  
ote nau bada  
ilargiaren zelatan  
larru bizirik agertzearren?

Ez, ez;

amodioa ez da  
etsaiak topatzeko sortua.

Amodioak bere soilean berotuko nau.

Ostera horretan

ez da nire odol-basoen barna  
odolik batuko.

Izkiriatu?

Izkiriatu hitz goxoak?  
Baina,  
halabeharrez  
amodioaren berotasunak  
kiskaliak ditu hizki guztiak!  
Apoztuak ditu idatzi guztiak!

Amodioak  
ez bait du izkiriatura izan behar  
goxotasunean murgiltzeko.

Berak jaurtikia du  
xarmaren pindarra;  
ixiotua du  
ilargiaren dizdira.

Eta gortinak zabaltzearekin  
apoen kro-kroaz jabetu zarenean,  
xerak egitea ukatua didazu;  
eta ilargi erdia  
laino ilun batek lausotu duenean,  
laztanez jaztea galerazia didazu.

Horregatik zara  
larrugorriaz gogaitu  
eta fereku gozoez okitu!



Eta orain bai,  
instant honetan  
amodioak eztanda egin du;  
gu bion  
larruak aldentzeari  
hautetsi dio.

Ni,  
ez noa amodioaren txilioari  
erazagutzea;  
ezen beldur bait naiz.  
Amodioaren uluen aurrean  
kokildu bait naiz.

Eta izaki arbuiagarriok,  
eztandaren desira  
onetsi dugu!!

Baina...  
egunsentian  
eguzkiaren izpiek  
kresalaren uhina barreiatu dutenean,  
zure zangoetako kokila  
hobiratua senti ahal izan dut.

Berriro zure ezpainen irrifarrea  
harribitxi ederrenaren izariko  
izatera iritsi da;  
berriro zure begininien finkatzea  
diamantearen aitzindari  
bilakatu da;  
berriro zingirara egotzi zenuen  
malko baliotsu hura  
irazekia izan da  
gure loturaz goxatzeko.

Eta egunsentiak  
oharterazi nau,  
eztanda hobiratua dela;  
beldurra erbesteratua izan dela.  
Amodioak berriro  
estali gaituela  
laino bereko euripean!  
Eta egunsentiaren argiaz jabetu naiz  
zu galduaz,  
ez duela bizitzak  
amodiorik garaile ezarriko.

# **Amodioaren sehaskan**

Garikoitz Berasaluze Ostolaza  
Lizardi B. Institutua  
Zarautz



## GAUAREN ULUA

Galdua dugu arrastiri hau ere  
eta ilargiaren erresumapean  
izarren beilari  
bihurtu naiz;  
bakardadearen nigar isila  
malenkoniaren orruaz,  
eta etsipenaren taupadak  
gauaren malkoen dizdiraz.  
Oroipenen hegaldia  
behaz nabil,  
ibarrean barna  
orbeleko izarretan erromes,  
zure izatea  
nabarmen dudala,  
beste askotan lez  
betirako zu maitez...  
malenkonia dario gauari.

## IHINTZ ETA NIGAR

Monotoniaren erresuma  
zapaltzailearen harresietatik at  
izadiaren hatsetan  
galtzen naizenean,  
arrastiria olestu ostean,  
gauak kulunkatzen nau  
amodioaren sehaskan  
zure irrikaz.

Eta itxaropenaren ordaina  
ilusio hutsaletan hedaturik,  
malkoak darizt,  
lar apika,  
baina inoiz ez hala ere  
zuk merezi adina.

## EZINAREN KORDETAN

Ez dut lortzen zure maitasuna.  
Ezinaren kordetan geratzen zait  
zure izena eskegirik.  
Oasirik gabeko  
etsipenaren basamortuetan,  
nostalgiak oroitzapenetan  
denboraren goldeak gauaren erraietan  
amildegi beltza legez  
irekiriko museoan,  
eta zure bihotzeko  
txoko izkutu horretan  
bilatzen dut;  
baina ez dut aurkitzen.  
Ez dut lortzen zure maitasuna.  
Ene esperantza apurraren  
azken malkoekin  
ihesten zait arratsero.

## GAUERO

Gauero,  
apotesiaren sugarrak itzalirik,  
kalera irten eta  
etsipenen ziztadez  
bakardadearen atea hertsu  
eta espaloian galdurik,  
zure begirada urgurian izozturik,  
geratzen naiz eskegurik,  
zintzilik...  
zure ezinez,  
halabeharrez, etsipenez,...  
karrikan behera bakarrik,  
ironiazko aurpegia soinean,  
antzetak marinelen inguruan,  
norbaiten nigar estalia  
malenkoniaren bestekaldean,  
iraunkorra zure begirada  
ene irudimenean.



# **Poesiaren magalean**

Garikoitz Berasaluze Ostolaza  
Lizardi B. Institutua  
Zarautz



Bai.  
Edonon.  
Eskuarki,  
gau ahantziaren eskuetan,  
agortzen hasiriko  
arrastiri galduaren amaieran;  
zure begirada gidari dudala  
edo  
aterkirik gabeko  
zaparrada indargearen pean  
entzuniko poesiaren asotsaz,  
erdi ditzaket grafitozko ahapaldiak,  
malkoz bustiriko paperaren  
lerrorik gabeko  
etsipenaren pentagraman,  
amodioz mozkor.

Bai.  
Edonon.  
Zuriaren zertzeladez  
urraturiko orria  
zure aurpegiaren islada  
bihur dezaket:  
begi, ezpain,...  
lili, krabelin,  
irriño, nigar,...  
xarbot, txilar.  
Edertasunaren ispilu,  
zimeltzear den arrosa urguri,  
baina arantza tente,  
norbaiten bihotzean  
oraindik nigarra sortzeko gai.

Bai.  
Edonon.  
Poesiaren magalera kizkur naiteke;  
noraeezan,  
zaldun ahantziaren ezpataz izkiriaturuz,  
halabeharrez zikiriaturiko  
gudari ausartaren odolaz,  
belazeetan desagerturiko  
askatasun lorearen atzetik,  
sasi arteko  
arrosa galduaren bila,  
isiltasunaren orro mutuan  
murgildurik,  
xuxurlatuz bihotzak dioena.

Bai.  
Lehen, orain eta beti.  
Edonon.  
Beti izanen da  
zaldun bat,  
ahapaldiz armaturik,  
non bere odol gorriaz  
beste norbaitek,  
ezpata zuriz zelai berdeetan,  
poesiaren erreinua zutik  
mantenduko duen.  
Malkoz, etsipenez,...  
amodioz mozkor.

# **Zerutik maiteari**

Urtzi Urrutikoetxea Vacas  
Gabriel Aresti B. Institutua  
Bilbo





Doinua: Bizia ez da nehoiz egoten

1

Maitatzen dugun norbait galtzeak  
beti egiten digu min;  
une hoietan beste arazo  
guztiak zaizkigu berdin.  
Gehiago ezin ikusi eta  
kontra ezin ezer egin,  
baina momentu triste horiek  
gaindi behar dira arin,  
luzarorako depresioan  
norbera jausi ez dadin.

## 2

Ezingo gara inoiz ahaztu  
atzoko egun haretaz;  
ez zendun uste inor galtzea  
zenik hain latz eta erraz.  
Alai esnatu, lokartu goibel  
lagun bat gutxiagogaz.  
Ene maitia, entzun ezazu  
diotsudana arretaz,  
bertso hauexek aditutzean  
oroitu zaitezten nitaz.

## 3

Atzoko egun latzgarri hura  
izango duzu gogoan:  
beti bezala, atzo ere bai,  
lanera zugaz nindoan.  
Mozkortutako bat hurbildu zen  
gugana bere autoan,  
instant txiki bat beranduago  
ez nengon zure ondoan,  
zu salba arren ni harrapatu  
ninduen oso-osoan.

#### 4

Laztana ez dut inor maitatu  
zerori baino gehiago.  
Badakit ere nik ez nuela  
beste mutil bat nahiago.  
Gu biok ginen bata bestean  
maitasunaren esklabo.  
Bizi ezazu alai bizitza  
zuri ez zaizu akabo.  
Zeruan nago, baina arima  
zeure bihotzean dago.

#### 5

Ezkondutako etorkizunaz  
hitzegiten genuen maiz.  
Geure harreman ezinhobea  
zer edo zer hobetu nahiz  
prest geunden biok pasatutzeko  
behar ziren beste ekaitz.  
Nahiz ez ibili gure asmoak  
bete izateko garaiz,  
zerura inoiz sentigabeko  
maitasuntzarraz igo naiz.

## 6

Beti pentsatu dugun bezala  
gauza onak daude hemen,  
baina pertsona bat ez dagola  
lehen unetik dut nabarmen.  
Konturatu naiz gure artean  
dagona zein haundia den:  
amodioaz aberastea  
posible balitz izanen,  
mundu hontako dirudunenak  
gu biok izango ginen.

## 7

Zeru honetan ez da aingerurik  
beraz Cupido ere ez;  
hauxe da, bion arteko hori  
sortu egin zela berez.  
Jai du banatu garela uste  
duenak balbean bidez.  
Ailega zaite zahartzarora  
pozik ta alaitasunez;  
urte mordoxka faltatu zaizkit  
bizi itzazu ene orde.

## 8

Lehen unean ideia txar bat  
heldu zitzaidan gogora;  
beldur bait nintzen zurekikoa  
egingo ote zen aztora.  
Baina nabari dut maitasun hau  
doala gora ta gora:  
noizbait berriro elkartutzeko  
ordua etorriko da.  
Bitarte hortan zure bizitza  
bizi ezazu gustora.

## 9

Nahiz ta oraindik gaztea izan  
nire ordua heldu da.  
Malkoz didazu adierazi  
zenbat nitzaizun ardura.  
Gehiago bizi ahal izatea  
nik ere bai nuke gura.  
Maite zaitut ta galdu ezazu  
begietatik tristura:  
sineskaitza da zenbat maitasun  
darodan beste mundura.





Utz iezadazu imajinatzen igande ilunabar batean gertatu zitzazula. Ohizko igande hits horietako batean, agian.

Matematikako edo ingeleseko edo historiako liburukote eta apunte zirriboratuak baztertuz abiatu zinen folio zurian barrena, bide hartatik nora helduko ote zinen batere jakin gabe, edozein abenturak eman ohi dituen emozio eta premia berberetz. Eta hasieran bai, hasieran trumilka zetozkizun esaldi luzeak, adjetibo zehatzak, esamolde bitxiak, den-denak asmatu berria zenuen istorioaren zerbitzuan zeudelarik. Dena ondo zihoan, emozio berezi batek harrapatua idazten zenuen eta presa eta grina handiz izkiriatzera behartua sentitzen zinen, gazte garaian idatzi behar den moduan bezala, alegia.

Utz iezadazu imajinatzen, bukatzeko, eta bizitzak noiz-behinka eskaini ohi duen kasualitate zoriontsu bati esker, hurrengo egunen batean, institutuan, *Urruzuno literatur lehiaketaren* berri izan, eta zeure lana aurkeztea erabaki zenuela...

*Mariasun Landa*



EK15020312  
Irakaskuntza Ertainetako Urruzuno Literatur Lehiaketa 1992

**EUSKO JAURLARITZA**  
ARGITALPEN-ZERBITZU  
NAGUSIA

Salneurria: 530 pta.  
(BEZ barne)